

12/2023 Legea, maiatzaren 24koa, Etxebizitza Eskubidearen aldekoa.

2023/05/25eko «BOE», 124. zk.

**FELIPE VI.a
ESPAINIAKO ERREGEA**

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.
Jakizue:

Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela
eta Nik berretsi egiten dudala.

HITZAURREA

I
Espainiako Konstituzioak (EK), 47. artikuluan,
etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea
aitortzen du, eta, jarraian, ezartzen du botere
publikoek beharrezkoak diren inguruabarrak
bultzatu behar dituztela konstituzio-eskubideak
eta -eginbeharrak berdintasunez gauzatzeko
direla bermatzeko, eta bidezkoak diren arauak eman
behar dituztela eskubide hori egikaritu dadin.

Hori guztia 9.2 artikuluaaren proiektio gisa, eta
horrek azaltzen du zergatik dagoen sistematikoki
kokatuta oinarritzko arauaren I. tituluko III.

kapituluan, politika sozial eta ekonomikoaren
printzipio gidariei buruzkoa baita.
Horrela aitortutako konstituzio-eskubideak, bere
xede dela eta, eragina du oinarritzkotzat ere
jotzen diren beste konstituzio-eskubide batzuen
edukia baliatzeko orduan, hala nola hauena:
osotasun fisiko eta moralerako eskubidea (EKren
15. artikulua), norberaren eta familiaren
intimitaterako eskubidea (EKren 18. artikulua),
osasunaren babeserako eskubidea (EKren 43.
artikulua) eta ingurumen egoki baterako
eskubidea (EKren 45. artikulua). Eskubide horiek
guztiek lotura estua dute bizi-kalitatearen
balioekin —oinarritzko arauaren hitzaurrean
bertan hitz egiten da bizi-kalitateaz— eta
gizartean nortasuna libreki garatzearekin (EKren
10.1 artikulua).

Eragin eta inbrikazio hori Giza Eskubideen
Europako Auzitegiaren jurisprudentziatik ere
ondorioztatzen da, eta are gehiago nabarmentzen
da Konstituzio Auzitegiaren doktrinan, haren
hartzailera den heinean.

Horrek guztiak modulatu egiten ditu bai jabetza-
eskubidea bai enpresa-askatasuna,
etxebizitzaren sektoreari dagozkionean; alde
batetik, bete behar duen funtzio sozialarengatik,
eta, bestetik, interes orokorrarengatik, hurrenez
hurren (EKren 33.2, 38, 128.1 eta 131.1
artikuluak).

Eta hori guztia, oinarri hartuta espainiar guztiak
berdinak direla Estatuaren lurralde osoan (EKren
139.1 artikulua), EKren 14. artikulua dioen

Ley 12/2023, de 24 de mayo, por el derecho a la vivienda.

«BOE» núm. 124, de 25/05/2023.

**FELIPE VI
REY DE ESPAÑA**

A todos los que la presente vieren y entendieren.
Sabed:

Que las Cortes Generales han aprobado y Yo
vengo en sancionar la siguiente ley:

PREÁMBULO

I
La Constitución española (CE) reconoce, en su
artículo 47, el derecho al disfrute de una vivienda
digna y adecuada e impone seguidamente a los
poderes públicos el deber de promover las
condiciones necesarias que garanticen la
igualdad en el ejercicio de los derechos y el
cumplimiento de los deberes constitucionales y
de establecer las normas pertinentes para hacer
efectivo el referido derecho.

Todo ello como proyección de su artículo 9.2, lo
que explica su ubicación sistemática en el
capítulo III del título I de la norma fundamental,
referido a los principios rectores de la política
social y económica.

Por su objeto, el derecho constitucional así
reconocido incide en el goce del contenido de
otros derechos constitucionales, declarados
incluso fundamentales, como los relativos a la
integridad física y moral (artículo 15 CE), a la
intimidad personal y familiar (artículo 18 CE), a la
protección de la salud (artículo 43 CE) y a un
medio ambiente adecuado (artículo 45 CE);
derechos, todos ellos, que guardan una relación
estrecha con los valores de la calidad de vida —de
la que habla el propio preámbulo de la norma
fundamental— y del libre desarrollo de la
personalidad en sociedad (artículo 10.1 CE).

Esta incidencia e imbricación también se deduce
de la jurisprudencia del Tribunal Europeo de
Derechos Humanos y resalta en la doctrina del
Tribunal Constitucional, que es receptiva de
aquella.

Todo lo cual modula, tanto el derecho de
propiedad, como la libertad de empresa, cuando
operan en el sector de la vivienda, desde el doble
punto de vista de la función social que deben
cumplir y del interés general, respectivamente
(artículos 33.2, 38, 128.1 y 131.1 CE).

Y ello sobre el trasfondo de la igualdad de todos
los españoles en cualquier parte del territorio del
Estado (artículo 139.1 CE) en los términos del



bezala, eta, bereziki, desabantaila-egoeran dauden pertsonak eta talde sozialak (EKren 48. artikulua), eta aintzat hartuta kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes legitimoak, bat etorri Espainiako Konstituzioaren 51.1 artikuluekin.

Etxebizitza, beraz, konstituzio mailako funtsezko ondasun bat da, hainbat dimentsio dituena.

Ikuspuntu horretatik, Konstituzio Auzitegiak berak berretsi du ez dela eskumen-titulu autonomo bat, baizik eta Estatuaren edo autonomia-erkidegoen eskumen-titulu desberdinen mende egon daitekeela, legegileak kasuan-kasuan erabiltzen dituen tresna arautzaileak eta ikuspegia zein diren.

Eskumenekin loturiko konplexutasun hori, hain zuzen, etxebizitzak Konstituzioan hartzen dituen askotariko dimentsioen ondorio argia da.

Etxebizitza, oroz gain, gizarte-ongizatearen oinarri nagusietako bat da, aintzat hartuta bizitza pribatua eta familiakoa garatzeko lekua eta hiri-politika guztien erdigunea dela.

Baina, era berean, euskarri fisikoaren ikuspegitik, bada etxebizitzak ekoitzi, merkaturatu eta kudeatzeko lan egiten duen sektore ekonomiko bat egituratzen duen ondasun bat ere.

Izan ere, hiri-eraikintza osoaren barnean, etxebizitzak espazio eraikiaren % 80 hartzen du, eta, beraz, faktore erabakigarria da espazioaren egituraketan.

Etxebizitza-eskubidea, gizartearen duen garrantzia dela eta, jasota dago, logikoaenez, nazioarteko zenbait adierazpen garrantzitsutan, hala nola Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean, zeina Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak onartu eta aldarrikatu baitzuen 1948ko abenduaren 10ean, 183. bilkuran.

Adierazpen horren 25.1 artikuluan arabera, pertsona orok eskubidea du bizi maila egokia izateko, bai berari bai bere familiari etxebizitza ziurtatuko diena.

Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak ere (New Yorken egin zen, 1966ko abenduaren 19an), 11.1 artikuluan, ezartzen du pertsona orok duela eskubidea bizi maila egokia izateko, barne harturik etxebizitza egoki bat, besteak beste.

Era berean, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioak ildo hori jarraitzen dio, bere artikuluetan adierazten baitu irisgarritasuna bermatu behar dela etxebizitza egoki batez gozatzeko funtsezko baldintza gisa.

Europar Batasunak ere aurrera egin du pertsona ororen etxebizitza-eskubidearen onarpenean: 1961eko Europako Gutun Sozialean jaso zuen, eta 1996an berrikusitako Europako Gutun

artículo 14 CE y, en particular, de las personas y grupos sociales en situación de especial desventaja (artículo 48 CE) y los legítimos intereses de consumidores y usuarios, de acuerdo con el artículo 51.1 de la Constitución Española.

La vivienda resulta ser, así, un bien esencial de rango constitucional que presenta múltiples dimensiones.

Desde esta perspectiva, el propio Tribunal Constitucional ha reiterado que no constituye un título competencial autónomo, sino que puede recaer bajo distintos títulos competenciales estatales o autonómicos dependiendo de cuál sea el enfoque y cuáles los instrumentos regulatorios utilizados en cada caso por el legislador.

Dicha complejidad competencial es clara consecuencia de las distintas dimensiones constitucionales que presenta la vivienda.

La vivienda constituye, ante todo, un pilar central del bienestar social en cuanto lugar de desarrollo de la vida privada y familiar, y centro de todas las políticas urbanas.

Pero también, desde el punto de vista de su soporte físico, es un bien que acota un sector económico dedicado a su producción, puesta en el mercado y su gestión.

De hecho, en el conjunto de la edificación urbana, la vivienda ocupa el 80% del espacio construido y, como tal, es un factor determinante de la estructuración espacial.

Es lógico que, dada su relevancia social, el derecho a la vivienda se recoja en importantes declaraciones internacionales, como la Declaración Universal de Derechos Humanos, adoptada y proclamada por la 183.^a Asamblea General de la Organización de las Naciones Unidas, de 10 de diciembre de 1948.

Su artículo 25.1 prevé que toda persona tiene derecho a un nivel de vida adecuado que le asegure, tanto a él o ella, como a su familia, la vivienda.

El Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, hecho en Nueva York el 19 de diciembre de 1966, reconoce también en su artículo 11.1, el derecho de toda persona a un nivel de vida adecuado incluyendo, entre otros, una vivienda igualmente adecuada.

Asimismo, la Convención Internacional sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad sigue esta misma línea, reconociendo a lo largo de su articulado la necesidad de garantizar la accesibilidad como presupuesto fundamental para el disfrute de una vivienda adecuada.

La Unión Europea también ha avanzado en el reconocimiento del derecho a la vivienda de toda persona, que se recogió en la Carta Social Europea de 1961 y se reforzó en la Carta Social



Sozialean indartu. Gutun horren arabera, alderdiek konpromisoa hartzen dute zenbait neurri abian jartzeko: «kalitate nahikoa duen etxebizitza bat eskuratzeko erraztasunak ematea; etxebizitzarik ez dutenen egoera prebenitzea eta arintzea, egoera hori pixkanaka ezabatzeko helburuarekin; eta etxebizitzak arrazoizko prezioan jartzea baliabide nahikorik ez dutenentzat».

Eskubide Sozialen Europako Zutabeak ere, 19. artikuluan, etxebizitza sartzen du Europako ongizate-sistemen funtzionamendurako printzipioen eta funtsezko eskubideen artean, eta, azkenik, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak hauxe dio 34.3 artikuluan (2000ko abenduaren 7an onartu zuten Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak): «Gizarteko bazterkeriaren eta pobrezia-aren aurka borrokatzeko, Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du gizarte-laguntzak eta etxebizitza-laguntzak izateko eskubidea, baliabide nahikorik ez duten guztiei bizimodu duina bermatzeko, Batasuneko Zuzenbideak eta estatu bakoitzeko lege eta jokoarek ezarritako moduan».

Ildo beretik doa Europako Parlamentuaren 2021eko urtarrilaren 21eko Ebazpena, etxebizitza duin eta guztientzako eskuragarri bat izateari buruzkoa. Ebazpen horretan, hain zuzen, Batzordeari eta estatu kideei eskatzen zaie etxebizitza egokia izateko eskubidea oinarrizko giza eskubidetzat aitortu eta betearaz dezatela, aplikatzekoak diren Europako eta estatuko legegidedapenen bidez, eta etxebizitza duina eskuratzeko aukera berdinak bermatu ditzatela guztientzat.

Laburbilduz, nazioarteko arau eguneratuenak jakitun dira etxebizitza eskuratzeko orduan segregazioa dagoela de facto, eta herritar asko segregazio-prozesu horren biktima direla, batez ere gazteak eta familia eta kolektibo zaugarriak. Horrenbestez, arauok eskatzen dute alda dadila etxebizitzaren kontsiderazio juridikoa, interes orokorreko gizarte-zerbitzu gisa duen funtzioa indartze aldera.

Horrela baino ezin izango zaie bermatu etxebizitza duina eta eskuragarria izateko eskubidea gazte guztiei, eta, bereziki, bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboek, oinarrizko giza eskubide gisa aitortuz eta betearaziz. Horretarako, eskubide horrek barne hartu behar du hirigintzari eta lurralde-antolamenduari buruzko legerian definitutako oinarrizko zerbitzuak jasotzeko aukera, horrek modua emango baitu ingurune egoki batean bizitza duina bermatzeko eta pobrezia mota guztiak desagerrarazteko.

Europea revisada en 1996, según la cual las partes se comprometen a adoptar medidas destinadas «a favorecer el acceso a la vivienda de una calidad suficiente; a prevenir y paliar la situación de carencia de hogar con vistas a eliminar progresivamente dicha situación y a hacer asequible el precio de las viviendas a las personas que no dispongan de recursos suficientes».

También el artículo 19 del Pilar Europeo de derechos sociales, incorpora la vivienda entre los principios y los derechos esenciales para el funcionamiento de los sistemas de bienestar europeo y, por último, la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea aprobada por el Parlamento, el Consejo y la Comisión Europea el 7 de diciembre de 2000 establece en su artículo 34.3 que «con el fin de combatir la exclusión social y la pobreza, la Unión reconoce y respeta el derecho a una ayuda social y a una ayuda de vivienda para garantizar una existencia digna a todos aquellos que no dispongan de recursos suficientes, según las modalidades establecidas por el Derecho comunitario y las legislaciones y prácticas nacionales».

En esta misma línea se ha expresado la Resolución del Parlamento Europeo, de 21 de enero de 2021, sobre el acceso a una vivienda digna y asequible para todos, en la que se pide a la Comisión y a los Estados miembros que se aseguren de que el derecho a una vivienda adecuada sea reconocido y ejecutable como un derecho humano fundamental mediante disposiciones legislativas europeas y estatales aplicables, y que garanticen la igualdad de acceso para todos a una vivienda digna.

En suma, la normativa internacional más actual es consciente del proceso de segregación de facto en el acceso a la vivienda de la que es víctima gran parte de la población, especialmente jóvenes y familias y colectivos vulnerables.

Como consecuencia, sus postulados demandan un cambio de paradigma en la consideración jurídica de la vivienda, para reforzar su función como servicio social de interés general.

Sólo de este modo será posible garantizar el derecho efectivo a una vivienda digna y asequible para todas las personas jóvenes, y especialmente a aquellos colectivos en riesgo de exclusión, reconocido y ejecutable como un derecho humano fundamental e incluyendo en el mismo el acceso a los servicios básicos definidos en la legislación urbanística y de ordenación del territorio, contribuyendo así a garantizar la vida digna en un entorno adecuado y a erradicar la pobreza en todas sus formas.



Bestalde, nazioarteko hiri-agendek ere arreta berezia jartzen dute etxebizitzaren gaian. Zehazki, Espainiako Hiri Agendak, zeina bat baitator beste agendekin eta 2030 Agendak aldarrikatzen dituen garapen jasangarriko helburuekin, eskatzen du ezar daitezela etxebizitzaren arloko neurri eta politikak, helburu hauek lortzeko: pertsona guztiek etxebizitza duina eta egokia arrazoizko prezioan eskuratzeko eskubidea modu progresiboan gauzatzea; diskriminazio eta indarkeria mota guztien aurka borrokatzea, bereziki generoaren arloan; nahitaezko utzarazpen arbitrarioak eragozteak; erdigunean jartzea etxerik gabeko pertsonen premiak —etxegabetasunaren fenomenoak deuseztatze aldera—, zaurgarritasun-egoeretan daudenenak, diru-sarrera txikiak eta zailtasun bereziak dituzten talde sozialenak eta desgaitasuna duten pertsonenak; eta, era berean, komunitateen eta pertsona interesdun guztien parte-hartzea eta lankidetzak bultzatzea.

Agenda berri horiek, hala estatukoek nola nazioartekoek, estatuei eta Administrazio Publikoaren gainerako mailei erakusten diete beharrezkoa dela lurzoruaren eta etxebizitzaren funtzio soziala aintzatestea, eta konpromisoa hartu behar dela etxebizitzak sortzeko aukera sorta zabala egon dadin eta askotariko edukitza motak eta pertsonengan zentratutako ikuspegiak susta daitezela.

Hori guztia, giza kokaguneen ikuspegi inklusibo batean oinarrituta.

Era berean, lege hau onartuta, bete egiten da Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean ezarritako mugarrietako bat, Etxebizitza Legearen C02.R03 erreformari dagokiona (Kontseiluaren 2021eko ekainaren 16ko Beteazpen Erabakiaren Proposamenaren eranskineko 22. zenbakian jasotzen da), zeinaren helburua baita indarrean jartzea energia-kontsumo ia nuluko eraikinen eskakizunak betetzen dituzten etxebizitzaren eskaintza handitzeko ekintzen arau bat, eta horrek lotura estua du etxebizitza duin eta egokiaren definizioak berak ezartzen dituen helburuekin, zeinetara bideratuta baitaude hartutako neurri guztiak.

EKren 47. artikulua ezartzen duen eginbearra botere publiko guztiei dagokie, salbuespenik gabe, eta nork bere eskumenen esparruan bete behar dute.

Lege hau ulertzeko, beraz, kontuan izan behar da Estatuak bete egin behar duela, bere konstituzio-eskumenen barruan, etxebizitza duina eta egokia eskuratzeko eta izateko eskubidea babesteko duen betebeharra.

Por su parte, las Agendas Urbanas internacionales prestan especial atención, también, a la vivienda y, en concreto, la Agenda Urbana Española, alineada con estas y con los objetivos de desarrollo sostenible que proclama la Agenda 2030, reclama la promoción de medidas y la adopción de políticas en materia de vivienda que respalden la realización progresiva del derecho de todas las personas a una vivienda digna y adecuada, a precios asequibles; que luchen contra todas las formas de discriminación y violencia, especialmente en materia de género; que impidan los desalojos forzados arbitrarios y que se centren en las necesidades de las personas sin hogar erradicando el fenómeno del sinhogarismo, de quienes padecen situaciones de vulnerabilidad, de los grupos sociales con bajos ingresos y especiales dificultades y de las personas con discapacidad; a la vez que propician la participación y la colaboración de las comunidades y de todas las personas interesadas.

Estas nuevas Agendas, tanto nacional, como internacionales, muestran a los Estados y demás escalones de Administración Pública la necesidad de reconocer la función social del suelo y de la vivienda y su compromiso a favor de una amplia gama de opciones de creación de vivienda, de promoción de diversos tipos de tenencia y de enfoques centrados, en suma, en las personas.

Todo ello en el marco de una visión inclusiva de los asentamientos humanos.

Asimismo, la aprobación de la presente ley cumple con el hito establecido en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia de España, relativo a la reforma C02.R03 «Ley de Vivienda» recogido en el número 22 del anexo a la Propuesta de Decisión de Ejecución del Consejo, de 16 de junio de 2021, relativa a la entrada en vigor de una norma que incluye acciones de apoyo al aumento de la oferta de viviendas que cumplan los requisitos de los edificios de consumo de energía casi nulo, estrechamente vinculado a los objetivos que marca la propia definición de vivienda digna y adecuada a los que se orienta el conjunto de medidas adoptadas.

El deber impuesto por el artículo 47 CE incumbe a todos los poderes públicos sin excepción, que están obligados a cumplirlo en el marco de sus respectivas esferas de competencia.

Esta ley debe entenderse, por tanto, en el contexto del cumplimiento por parte del Estado de la obligación que, en el marco de sus competencias constitucionales, le incumbe en la protección del derecho a acceder a una vivienda digna y adecuada y a su disfrute.



Gainera, lege hau garai bereziki garrantzitsu batean sortu da. Izan ere, joan den hamarkadako krisi ekonomiko eta finantzarioaren ostean, eta pandemiak pertsona eta familia askori eragin zien egoera zaila pixkanaka lehengoratzten ari den honetan, hainbat eta hainbat herritarrek oraindik ere ondorio larriak pairatzen dituzte: askok etxea galdu dute, edo ezinezkoa zaie etxebizitza bat arrazoizko baldintzetan eskuratzea. Horrez gain, arau autonomiko ugari onartu dira lege honen aurretik (batez ere unean uneko egoeren ondorioz, eta ez horrenbeste modu estrukturalen), etxebizitzarekin lotutako premia sozial larrienei aurre egiteko xedez.

Arau horietako gehienak bigarren belaunaldikoak dira; hau da, kasuan kasuko autonomia-erkidegoetako etxebizitza arloko lehen edo bigarren legeak indarrean zeudela onartu dira.

Hori dela eta, deigarria da nola Estatuaren legegintza-politikan ez dagoen etxebizitzaren arloko araurik, oinarriko eta berdintasunezko baldintzak ezarriko dituenik Konstituzioak aitortzen duen etxebizitza-eskubidea modu uniformearen tratamendua dela bermatzeko, edota eskumen-tituluengatik Estatuari dagozkion beste alderdi batzuk arautuko dituenik; aintzat hartuta, gainera, badaudela arau espezifikoak etxebizitza estuki lotuta dagoen beste arlo batzuetarako. Konstituzio Auzitegiak berak, Estatuako legegileari gaitzespen moduko bat eginez, agerian utzi du ez dagoela etxebizitzari buruzko Estatuako legeriarik, gai horri dagokionez eman diren arau autonomiko ugarien konstituzionaltasun-parametro gisa balio dezakeenik.

Otsailaren 22ko 16/2018 Epaiak, bat aipatzearen, justifikatzen du ezinezkoa dela kontsideratzea arau autonomiko batek Estatuaren eskumenak urratzen dituela, baldin eta Estatuako legegileak «ez badu eman jabetza pribaturako eskubide konstituzionala berdintasunez gauzatzen dela ziurtatzeko araurik, etxebizitzaren jabeari (edo oro har eraikinen jabeari) erreserbatuko dionik etxebizitza horiek modu iraunkorrean habitatauta edukitzeko erabakia» (8.a OJ).

Era berean, uztailaren 5eko 80/2018 Epaiak hau gogorarazten du: «Estatuko legegileak ez du egikaritu EKren 149.1.1 artikulua ematen dion gaikuntza, eta, beraz, adierazi behar da ezen, epai hau ematen dugun unean, etxebizitzaren arloko legegile autonomikoak ez duela mugarik ikuspegi konstituzionaletik».

Jurisprudentiako doktrina hori bera berresten da beste epai batzuetan, hala nola apirilaren 10eko 32/2018 Epaian eta apirilaren 26ko 43/2018 Epaian.

Su dictado se produce, además, en un momento especialmente relevante, cuando tras la crisis económica y financiera de la última década y en el contexto de una progresiva recuperación tras la difícil situación a la que abocó la pandemia a muchas personas y hogares, una parte importante de la población sigue sufriendo severos impactos de la misma, focalizados en muchos casos en la pérdida de la vivienda o en la imposibilidad de acceder a ella en condiciones asequibles, y tras la aprobación de un buen número de normas autonómicas que, de forma más coyuntural que estructural, han tratado de dar respuesta a las necesidades sociales de vivienda más perentorias.

De hecho, una gran mayoría de dichas leyes son de segunda generación, es decir, han sido aprobadas estando vigentes las primeras o segundas leyes de vivienda de las respectivas Comunidades Autónomas.

Contrasta, por ello, la ausencia en las políticas legislativas del Estado de una norma en materia de vivienda que, al igual que existe en otros ámbitos con los que está íntimamente relacionada, fije aquellas condiciones básicas y de igualdad que garanticen un tratamiento uniforme del derecho a la vivienda que reconoce la Constitución, además de aquellos otros aspectos que, por virtud de sus títulos competenciales, le corresponden.

El propio Tribunal Constitucional, en una suerte de reproche al legislador estatal, ha puesto en evidencia la inexistencia de una legislación estatal sobre vivienda que sirva como parámetro de constitucionalidad a la elevada producción normativa autonómica en la materia.

La Sentencia 16/2018, de 22 de febrero, por citar alguna de ellas, justifica la imposibilidad de considerar que una norma autonómica contradice las competencias estatales cuando el legislador estatal no ha «dictado, para asegurar una cierta igualdad en el ejercicio del derecho constitucional a la propiedad privada, una norma que reserve al propietario de viviendas (o de edificaciones en general) la decisión de tenerlas permanentemente habitadas» (F.J. 8.a).

También, recuerda la Sentencia 80/2018, de 5 de julio, que «No habiendo el legislador estatal ejercido la habilitación que el art. 149.1.1.ª CE le otorga, resulta necesario afirmar que el legislador autonómico en materia de vivienda, en el momento en el que realizamos este enjuiciamiento, no encuentra límites desde esta perspectiva constitucional».

Esta misma doctrina jurisprudencial se reitera en otras sentencias como la 32/2018, de 10 de abril, y la 43/2018, de 26 de abril.



Lege hauxe da, beraz, Konstituzioa onartu zenetik etxebizitza-eskubidea arautzen duen Estatuko lehenengo legea; hala eta guztiz ere, ezin esan daiteke Estatua etxebizitza-politiketarik at egon denik.

Jakinakoa da funts publiko handiak esleitu direla zerga arloko laguntzen bidez, eta demokrazia osoan modu sistematiko eta jarraituan onartu direla herritarrengan eragin handia eta nabarmena izan duten etxebizitza-plan ezagunak.

Alabaina, hala diseinuari nola edukiari dagokionez, plan horiek guztiak unitarioak eta konstanteak izan dira luzaroan, eta defendatu eta gauzatu duten etxebizitza-politikaren norabide nagusia zera izan da: gero eta etxebizitza gehiago ekoiztea eta lurzoru berriak okupatzea. Horren ondorioz, bada, hiriak hazi egin dira, eta jabetzaren alde egin izan da etxebizitza eskuratzeko funtsezko modu gisa.

Jabetza hedatzeko eta sustatzeko politika hori beste joera bat hartuz joan zen, eta birgaitze-jardunetara eta alokairura lerratzen hasi zen abenduaren 12ko 2066/2008 Errege Dekretuak arautzen duen 2009-2012ko Etxebizitza eta Birgaitzerako Estatu Planaren bitartez. Eredualdaketa hori berresten eta indartzen dute honako estatu-plan hauek ere: Etxebizitzen Alokairua bultzatzeko, Eraikinen Birgaitzea bultzatzeko eta Hiri-berroneratzea eta -berrikuntza bultzatzeko 2013-2016ko Estatu Plana, apirilaren 5eko 233/2013 Errege Dekretuak arautua; 2018-2021erako Estatu Etxebizitza Plana, martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuak arautua; eta Etxebizitza Eskuratzeko 2022-2025eko Estatu Plana, urtarrilaren 18ko 42/2022 Errege Dekretuak arautua.

Hala eta guztiz ere, oraindik desoreka handiak daude eraikuntza berriaren eta birgaitze-jardueraren artean eta etxebizitza bat jabetzan edukitzearen eta alokairuan edukitzearen artean. Horrez gain, alokairuko etxebizitza-parke publikoak ez dira inondik ere nahikoak baliabide ekonomiko urriengatik merkatura sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen eta familien premiei erantzuteko.

Aintzat hartzekoa da datu hau: 1962. eta 2020. urteen artean eraikitako etxebizitza guztietatik, % 31,5 etxebizitza babestuak izan ziren (hau da, 5,7 milioi etxebizitza inguru babes publikoko araubideren baten babesean sustatu ziren), baina gehienek, nahiz eta ahalegin publiko handia egin zen haiek sustatzeko eta eraikitzeko, salmentatutako alokairu-mugan mende egoteari utzi diote denbora-tarte labur samarretan.

Esta ley es, por tanto, la primera ley estatal reguladora del derecho a la vivienda desde la aprobación de la Constitución, si bien, no puede decirse que el Estado haya estado ausente en las políticas de vivienda.

Es bien conocida la importante asignación de fondos públicos a través de ayudas correspondientes al ámbito fiscal y la aprobación sistemática y continuada durante toda la democracia de los conocidos Planes de Vivienda que han tenido una amplia e indudable repercusión sobre la población.

No obstante, todos ellos mantuvieron a lo largo del tiempo un carácter unitario y constante, tanto en su diseño, como en su contenido, defendiendo y materializando una política de vivienda basada fundamentalmente en el fomento de la producción de un volumen creciente de viviendas, la ocupación de nuevos suelos con el consiguiente crecimiento de las ciudades y la apuesta por la propiedad como forma esencial de acceso a la vivienda.

Esta política expansiva y de fomento de la propiedad, comenzó a reorientarse hacia la rehabilitación y el alquiler, con el Plan Estatal de Vivienda y Rehabilitación 2009-2012, regulado por el Real Decreto 2066/2008, de 12 de diciembre.

Los siguientes planes estatales: el Plan Estatal de fomento del alquiler de viviendas, la rehabilitación edificatoria, y la regeneración y renovación urbanas 2013-2016, regulado por el Real Decreto 233/2013, de 5 de abril, el Plan Estatal de Vivienda 2018-2021, regulado por Real Decreto 106/2018, de 9 de marzo, y el Plan Estatal para el acceso a la vivienda 2022-2025 regulado por Real Decreto 42/2022, de 18 de enero, sirven para confirmar y reforzar este cambio de modelo.

No obstante, aún existen importantes desequilibrios entre la nueva construcción y la actividad de rehabilitación y entre la tenencia de vivienda en propiedad y en alquiler, a lo que se suma el hecho de que los parques públicos de vivienda en alquiler sean del todo insuficientes para atender la necesidad de aquellas personas y hogares que tienen más dificultades para acceder al mercado por sus escasos medios económicos. Valga el dato de que, del total de las viviendas construidas entre el año 1962 y el año 2020, el 31,5% fueron viviendas protegidas, es decir, unos 5,7 millones de viviendas que se promovieron al amparo de algún régimen de protección pública, pero que en su mayoría y pese al importante esfuerzo público realizado en su promoción y construcción, han dejado de estar sujetas, en plazos relativamente cortos, a ningún tipo de límite de venta o alquiler.



Lurraldearen ikuspegitik, halaber, aitortu behar da etxebizitza eskuratzeko dauden desorekak ez direla soilik hiriguneetan eta hiri handietan gertatzen, landagune askotan ere urriegia baita egoera egokian dauden etxebizitzaren eskaintza, eta, beraz, neurriak hartu behar dira lehendik dagoen eraikuntza-parkea berreskuratzeko, birgaitzeko edo egokitzeko, botere publikoen laguntzarekin.

Horrenbestez, beharrezkoa da administrazio guztiek, etxebizitzaren arloan dituzten eskumenak baliatuz, landa-eremuetan etxebizitza eskuratzeko modua bermatzea, bereziki kolektibo zaugarriari, lurralde-koheretza bultzatuz eta despopulazioari aurre eginez.

Gaur, ezinbestekoa da etxebizitzaren arloko plangintza ekonomikoak lege-esparru egonkor bat izatea, eta horixe da, hain zuzen ere, lege honen misioetako bat.

Etxebizitza-parkearen kalitateari dagokionez, eraikuntzaren estatu-araudiak etxebizitzaren funtzionaltasunari, segurtasunari eta bizigarritasunari zuzenean eragiten dieten oinarriko betekizunak eta eskakizunak ezartzen ditu.

Alabaina, eskakizun horiek eraikuntza berriko etxebizitzetan bakarrik aplikatzen dira, edo lehendik dauden etxebizitzetan egiten diren interbentzio jakin batzuetan bakarrik, eta ez dago tresna eraginkorrik ziurtatzeko eskuratu ahal den errentaria jakitun dela kasuan kasuko higiezin-eragiketari dagokion etxebizitzaren kalitateaz eta prestazioez. Eta hori, bada, funtsezko alderdia da konstituzio-zuzenbidearekin bat egiteko.

Hori dela eta, printzipio orokor batzuk ezarri behar dira, bermatuko dutenak eragiketa horietan behar besteko informazioa emango dela datuen eta etxebizitzaren ezaugarrien bidez kontrastatu ahal izateko etxebizitza hori aski duina eta egokia dela pertsona edo bizikidetzaren unitate bat bertan bizi dadin, Konstituzioak eskatzen duen bezala.

II

Konstituzioaren 148.3 artikulua araberak, autonomia-erkidego guztiek dute bereganatua beren autonomia-estatutuetan, salbuespenik gabe, etxebizitzaren arloko eskumen osoa.

Hala, erkidegoetako legegileek etxebizitzaren arloko akzio publikoko programa arauemaile osoak egin ditzakete, Estatuak ez bezala, hark etxebizitza-politikan soilik izan baitezake eragina,

También desde el punto de vista territorial, es preciso reconocer que los desequilibrios en el acceso a la vivienda no se producen únicamente en los entornos urbanos y en las grandes ciudades, sino que también en el medio rural se identifica en muchas ocasiones una insuficiente oferta de vivienda disponible en adecuadas condiciones y son necesarias acciones encaminadas a la recuperación, rehabilitación o adaptación del parque edificatorio existente, que precisan el particular apoyo de los poderes públicos.

Así, se hace necesario que todas las administraciones, en el ejercicio de sus competencias sobre vivienda, garanticen el acceso a la vivienda en las áreas rurales, especialmente para los colectivos vulnerables, impulsando la cohesión territorial y facilitando la lucha contra la despoblación.

Hoy se considera imprescindible que la planificación económica en materia de vivienda cuente con un marco legislativo estable, una de cuyas misiones trata de cumplir esta ley.

En lo que se refiere a la calidad del parque de viviendas, la normativa estatal de edificación establece requisitos y exigencias básicas que afectan directamente a la funcionalidad, la seguridad y la habitabilidad de las viviendas.

Sin embargo, dichas exigencias sólo aplican en aquellas viviendas de nueva construcción o en determinadas intervenciones sobre las existentes y no se dota de instrumentos efectivos para asegurar el conocimiento efectivo por parte del adquirente o arrendatario de la calidad y prestaciones de la vivienda que es objeto de la operación inmobiliaria, un aspecto clave para asegurar su adecuación al derecho constitucional.

Por ello se hace necesario establecer unos principios generales de actuación para garantizar que en tales operaciones se disponga de la información suficiente para contrastar a través de los datos y características de la vivienda, que puede ser considerada como digna y adecuada para que una persona o unidad de convivencia pueda habitarla y disfrutar de ella, tal y como reclama la Constitución.

II

Conforme al artículo 148.3 de la Constitución, todas las Comunidades Autónomas tienen asumida en sus Estatutos de Autonomía, sin excepción, la competencia plena en materia de vivienda.

A diferencia del Estado, que sólo puede incidir, con distinto alcance y sobre la base de títulos competenciales diversos, en la política de vivienda, los legisladores autonómicos pueden



batzuetan irismen gehiagorekin eta besteetan gutxiagorekin, eta eskumen-titulu batzuetan oinarrituta soilik.

Estatuak zein legegile autonomikoek, beraz, arau-esparru koherente, egonkor eta seguru batean oinarrituta jardungo dute, Konstituzioaren 47. artikuluan onartzen den eskubidea behar bezala gauzatu ahal izateko dagozkion neurriak, ekintzak, planak eta programak abian jarritz eta espainiar guztiek eskubide hori berdintasunez baliatuko dutela ziurtatuz.

Konstituzio-jurisprudentziak ere bermea eman dio eskumen-konkurrentziaren eskema horri.

Ondorio horietarako funtsezko epaia Konstituzio Auzitegiaren 152/1988 Epaia da, uztailaren 20koa, zeinak aztertu baitzuen etxebizitzaren babes publikoko estatu-planetakoa bat eta babes eman baitzion plan horien dinamikari.

Epai horrek, geroagoko beste batzuekin batera, eutsi egin dio Konstituzio Auzitegiaren hasierako oinarritzko eskemari, zeinak aldeztu baitzuen Estatuak etxebizitza-planak onartzeko duen eskumena, EKren 149.1.13 artikulua oinarri hartuta batez ere, artikulua horrek Estatuari esleitzen baitio jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari dagokion eskumena, eta, zehazki, plangintza horren oinarriak ezarri eta plangintza hori koordinatzeko.

Badira, ordea, Estatuari legegintza-lan horri heltzeko eskatzen dioten beste eskumen-titulu batzuk.

Lehenik eta behin, EKren 149.1.1 artikuluan adierazten dena, hau da, konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatuko duten oinarritzko baldintzak arautzeko eskumena; kasu honetan, eskumen hori lotuta dago etxebizitzaren gaineko jabetza-eskubidearekin, baina baita etxebizitza duina eta egokia izateko konstituzio-eskubidearekin ere, eta are intimitaterako eta etxebizitzaren bortxaezintasunerako eskubideekin ere, aintzat hartuta ohiko etxebizitza dela pertsona gehien-gehien bizi tokia eta bizitza pertsonalaren eta familiarraren intimitaterako lekua.

Etxebizitzaren duintasuna eta egokitasuna ere, beraz, bertan bizi diren pertsonen eskubide horiek baliatzeko baldintzak dira.

Bigarrenik, aipatzekoak dira merkataritza-legegintzaren arloko estatu-eskumenak (EKren 149.1.6 artikulua) eta legegintza zibilar arlokoak (EKren 149.1.8 artikulua), lotura baitute etxebizitza eskuratzeari dagozkion kontratuekin, konstituzio-jurisprudentziak inolako zalantzarik gabe onartu duenez (ikus, denen erakusgarri, Konstituzio Auzitegiaren 15/1989 Epaia, urtarrilaren 26koa).

formular completos programas normativos de la acción pública en la materia.

Uno y otras están abocados, por tanto, a articular sus respectivas actuaciones de modo que puedan desplegarse en un marco normativo coherente, estable y seguro que haga posible la realidad del derecho reconocido en el artículo 47 de la Constitución en ejecución de las medidas, acciones, planes y programas correspondientes y la igualdad básica de todos los españoles en relación con dicho derecho.

La jurisprudencia constitucional también ha avalado este esquema de concurrencia competencial.

La Sentencia clave a estos efectos es la Sentencia del Tribunal Constitucional 152/1988, de 20 de julio, que tuvo como objeto de análisis uno de los planes de vivienda estatales de protección pública a la vivienda y que amparó la dinámica de dichos planes.

Dicha Sentencia, al lado de otras posteriores, han mantenido, en lo básico, el esquema inicial del Tribunal Constitucional, que amparó la competencia estatal para aprobar los planes de vivienda, fundamentalmente con base en el artículo 149.1.13.^a CE, que atribuye al Estado la competencia relativa a la planificación general de la actividad económica, en concreto el establecimiento de bases y coordinación de esta planificación.

Pero, existen otros títulos competenciales que exigen al Estado abordar esta tarea legislativa.

En primer lugar, el del artículo 149.1.1.^a CE para regular las condiciones básicas que garanticen la igualdad de todos los españoles en el ejercicio de los derechos y en el cumplimiento de los deberes constitucionales, en este caso, en relación con el derecho de propiedad de la vivienda, pero también con el ejercicio del derecho constitucional a disfrutar de una vivienda digna y adecuada e incluso con los derechos a la intimidad y la inviolabilidad del domicilio, puesto que la vivienda habitual es donde la inmensa mayoría de las personas tienen su domicilio y ejercen la intimidad de su vida personal y familiar.

La dignidad y adecuación de la vivienda son, pues, condiciones asimismo para el ejercicio de estos derechos de las personas que las habitan. En segundo lugar, están las competencias estatales en materia de legislación mercantil (artículo 149.1.6.^a CE) y civil (artículo 149.1.8.^a CE) en relación con los contratos vinculados al acceso a la vivienda, tal y como ha admitido sin vacilar la jurisprudencia constitucional (vid., por todas, la Sentencia del Tribunal Constitucional 15/1989, de 26 de enero).



Hirugarrenik, gogoan izan behar da ezarrita daudela kreditua, bankuak eta aseguruak antolatzeako oinarriak (EKren 149.1.11 artikulua), eta argi dagoela enpresa sustatzaileek etxebizitzak ekoizteko eta herritarrek etxebizitza horiek eskuratu ahal izateko beharrezkoa dela kreditu-entitateek maileguak ematea, eta gai horretan garrantzi handia dauka estatu-eskumenak.

Estatu-eskumen horrekin lotura estua dute ogasun nagusiarri eta Estatuaren zorrari dagozkien eskumenek (149.1.14 artikulua); eskumen-titulu horiek Estatuak egikaritu izan ditu, mailegu hitzartuak edo kualifikatuak arautzearen edota dirulaguntzak ematearen bidez.

Azkenik, ingurumena babesteko oinarritzko legeak egiteko estatu-eskumenak ere (EKren 149.1.23 artikulua) etxebizitzaren arloko arau bat ematera bultzatzen du Estatuak, kontuan harturik etxebizitzak ekoizteak eta erabiltzeak zer-nolako eragina duen ingurumenean. Horrez gain, aintzat hartu behar da meatzeen eta energiaren araubidearen oinarriekin lotutako eskumena (EKren 149.1.25 artikulua), etxebizitzaren azpisektorea funtsezko arloa baita efizientziaren eta energia-aurrezpenaren neurriei dagokienez. Ikusten denez, eskumen-titulu andana dago, eta, Estatuak horiek egikaritu ahal izateko, etxebizitzaren arloko estatu-arauak onartu beharra dago. Horrek ez du eragozten, jakina, autonomia-erkidegoek eta beste administrazio publiko batzuek —bereziki udal-administrazioak— arlo horretan bereganatuak dituzten eskumen eskusiboak legez dagokien moduan egikaritzea. Udal-administrazioaren eskumen propioa da, kasurako, babes publikoko etxebizitzak finantza-jasangarritasunaren irizpideetan oinarrituta sustatzea eta kudeatzea, bat etorri Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikuluekin.

III

Etxebizitzari buruzko lege honen xedea da, hain zuzen ere, etxebizitza-politiken alderdi funtsezkoenen araudi homogeenoa bat ezartzea, betiere aipatutako estatu-eskumen horietan oinarrituta, eta aintzat harturik etxebizitza-politikek eragin handia dutela, adierazi den bezala, ez bakarrik etxebizitza eskuratzeko eskubidean berean, baita beste konstituzio-eskubide batzuetan eta herrialdearen jardura ekonomikoan ere.

Eta hori guztia bi ikuspegitatik: batetik, juridiko-publikoa, zeina kontuan izan baita nagusiki atariko tituluaren eta I. titulutik III. titulura bitartean; eta, bestetik, juridiko-privatua, presentegoa IV. tituluaren.

En tercer lugar, cabe citar el establecimiento de las bases de la ordenación del crédito, banca y seguros (artículo 149.1.11.^a CE), resultando obvio que la producción de viviendas por las empresas promotoras y su adquisición por parte de la ciudadanía requiere, de forma mayoritaria, de préstamos otorgados por las entidades de crédito, materia en la que la competencia estatal es relevante.

En íntima conexión con esta competencia estatal se encontraría también la relativa a hacienda general y deuda del Estado (artículo 149.1.14.^a), que constituyen títulos competenciales que se han venido ejerciendo por el Estado en la regulación de los préstamos convenidos o cualificados o en el otorgamiento de ayudas económicas.

En último lugar, la competencia estatal para dictar legislación básica sobre protección del medio ambiente (artículo 149.1.23.^a CE), también lleva al Estado a dictar una norma en materia de vivienda, habida cuenta de la repercusión ambiental de la producción y utilización de las viviendas, así como la competencia relativa a las bases del régimen minero y energético (artículo 149.1.25.^a CE), puesto que el subsector vivienda es un ámbito clave en relación con las medidas de eficiencia y ahorro de energía.

Esto es, toda una pléyade de títulos competenciales, cuyo ejercicio estatal exige la aprobación de normas estatales sobre la materia vivienda, sin perjuicio, naturalmente, del legítimo ejercicio de las competencias exclusivas en dicha materia asumidas por las Comunidades Autónomas y también por otras Administraciones públicas, particularmente la municipal, a la que se atribuye como competencia propia la promoción y gestión de la vivienda de protección pública con criterios de sostenibilidad financiera en virtud del artículo 25.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local.

III

La presente Ley de vivienda, sobre la base de las referidas competencias estatales, busca el establecimiento de una regulación homogénea de los aspectos más esenciales de las políticas de vivienda que tanto afectan, como se ha señalado, no sólo a la satisfacción del propio derecho de acceso a la vivienda, sino también a la de otros derechos constitucionales y a la actividad económica del país.

Y ello desde una doble vertiente, una jurídico-pública, como es la contemplada, principalmente, en el título preliminar y en los títulos I a III, y otra vertiente jurídico-privada, más presente en el título IV.



Esparru horren barruan, legeak helburu hauek lortu nahi ditu:

- Herritarrek etxebizitzari dagokionez dituzten eskubide eta eginbeharren eta etxebizitzaren jabetzarekin lotutakoen oinarrizko araudia ezartzea, Estatuaren lurralde osoan aplikatzeko.
- Etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko aukera ematea merkatuko baldintzetan etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsoneri, arreta berezia jarriz gazteengan eta kolektibo zaurgarriengan, eta ahalegina eginez arrazoizko prezioak izango dituen eta hirigune eta landaguneetako errealtateari egokituko zaion eskaintza egon dadin.
- Etxebizitzen funtzionaltasuna, segurtasuna, irisgarritasun unibertsala eta bizigarritasuna ziurtatzeko tresna eraginkorrak jartzea, bertan bizi diren pertsonen duintasuna eta osasuna bermatzeko.
- Estatuaren etxebizitza arloko plangintzaren eta programazioaren funtsezko alderdiak definitzea, konstituzio-eskubidea lurralde osoan gauzatzen laguntzeko.
- Etxebizitza-parke publikoen oinarrizko araubide juridikoa erregulatzea, eta haien garapena, babesa eta efizientzia bermatzea, etxebizitza eskuratzeko zailtasun handienak dituzten biztanleria-sektoreei laguntzeko.
- Bizikidetzaren eta biztanle-modu desberdinetara egokitutako etxebizitza-tipologiak garatzen laguntzea, familien dinamiketara eta egungo eskakizunetara moldatzeko bidea emanez.
- Etxebizitza erosteko eta alokatzeko eragiketen babesa hobetzea, prozesuari segurtasuna eta bermeak emateko behar den gutxieneko informazioa sartuz.

Helburu horiei begira, legea bost titulutan egituratzen da, eta 36 artikulua, sei xedapen gehigarri, lau xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bederatziz azken xedapen ditu.

Lehenik, atariko tituluan, legearen xedea eta helburuak zehazten dira, eta egoki diren lege-definizioak ezartzen.

Gainera, interes orokorreko zerbitzu gisa planteatzen dira etxebizitza duina eta egokia eskuratzeko eskubidea gauzatzea helburu duten politikak, eta bi bide proposatzen dira horretarako: etxebizitza-parke publikoak sortzea eta kudeatzea, eta jarduketa publiko nahiz pribatuak egitea babes publikoko araubideren bati lotutako etxebizitzak hornitzeko. Etxebizitzaren arloko politika publikoak ikuspegi bikoitz batetik bideratu behar dira. Alde batetik,

Dentro de este marco, los objetivos perseguidos por la ley son los siguientes:

- Establecer una regulación básica de los derechos y deberes de los ciudadanos en relación con la vivienda, así como de los asociados a la propiedad de vivienda, aplicable a todo el territorio nacional.
- Facilitar el acceso a una vivienda digna y adecuada a las personas que tienen dificultades para acceder a una vivienda en condiciones de mercado, prestando especial atención a jóvenes y colectivos vulnerables y favoreciendo la existencia de una oferta a precios asequibles y adaptada a las realidades de los ámbitos urbanos y rurales.
- Dotar de instrumentos efectivos para asegurar la funcionalidad, la seguridad, la accesibilidad universal y la habitabilidad de las viviendas, garantizando así la dignidad y la salud de las personas que las habitan.
- Definir los aspectos fundamentales de la planificación y programación estatales en materia de vivienda, con objeto de favorecer el ejercicio del derecho constitucional en todo el territorio.
- Regular el régimen jurídico básico de los parques públicos de vivienda, asegurando su desarrollo, protección y eficiencia para atender a aquellos sectores de la población con mayores dificultades de acceso.
- Favorecer el desarrollo de tipologías de vivienda adecuadas a las diferentes formas de convivencia y de habitación, favoreciendo la adaptación a las dinámicas y actuales exigencias de los hogares.
- Mejorar la protección en las operaciones de compra y arrendamiento de vivienda, introduciendo unos mínimos de información necesaria para dar seguridad y garantías en el proceso.

Para avanzar en el cumplimiento de estos objetivos, la ley se estructura en cinco títulos y contiene 36 artículos, seis disposiciones adicionales, cuatro disposiciones transitorias, una disposición derogatoria y nueve disposiciones finales.

En primer lugar, en el título preliminar, se concretan el objeto y los fines de la ley y se establecen las correspondientes definiciones legales.

Además, se configuran las políticas destinadas a satisfacer el derecho de acceso a una vivienda digna y adecuada como un servicio de interés general, tanto mediante la creación y gestión de parques públicos de vivienda como a través de aquellas actuaciones, públicas y privadas, que tengan por objetivo la provisión de viviendas sometidas a algún régimen de protección pública. Las políticas públicas en materia de vivienda han de orientarse desde esta doble perspectiva, de



EKren 47. artikuluko agindua betetzeko, ezinbestekoa da lurralde-administrazio eskudunek etxebizitza-parke publikoak garatzea, eta horien bitartez asetzea, lehenik eta behin, zaurgarritasun-egoeran edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden kolektibo babesgabeen etxebizitza-premiak, eta, oro har, merkatuan etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituzten guztienak.

Bestetik, politika publikoek modua eman behar dute etxebizitza-eskaintza nahikoa eta egokia egon dadin, unean uneko eskariari erantzungo diona eta merkatuaren oreka ahalbidetuko duena, merkatuaren gardentasuna eta funtzionamendua ziurtatuz.

Laugarren xedapen iragankorrak, berriz, legea indarrean jarri aurretik egindako errentamendu-kontratuen araubidea jasotzen du, eta zehazten du indarrean jarraituko dutela etxebizitzaren errentamendu-kontratuari indarrean diren heinean eta ezohiko moduan aplikatzen zaizkien neurriek, eta, bereziki, 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluan jasotakoak (6/2022 Errege Lege Dekretua, martxoaren 29koa, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren esparruan presako neurriak hartzen dituen).

Xedapen indargabetzaile bakarrean, adierazten da legea indarrean jartzearekin batera baliorik gabe geldituko direla lege honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapenak.

Azken xedapenei dagokienez, azken xedapenetako lehenengoan salbuespenezko eta denboran mugatutako mekanismo bat ezartzen da, merkatuan esku har dezakeena tentsio-egoerak arintzeko eta, hala, administrazio eskudunei behar duten denbora eman ahal izateko eskaintzaren defizita konpentsa dezaten, hala badagokio, edo beste etxebizitza-politika batzuekin zuzendu ahal izan ditzaten bizitegi-merkatu tentsionatu deklaraturako eremuen gabeziak.

Horretarako, aldatu egiten da Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legea, eta, errentapeko etxebizitzari dagokienez, ezartzen da errentariak aukera izango duela kontratua amaitzean ezohiko luzapen bat eskatzeko, urtean urtekoa eta gehienez ere hiru urterako, indarrean dagoen kontratuaren baldintza berberetan. Bestalde, errentan emanda egon diren etxebizitzaren errentamendu-kontratu berriei dagokienez, planteatzen da eremu horietan errentari berriei alokairua mugatzea, oro har, aurreko kontratuaren errentara, aurreko kontratuaren errenta urtero eguneratzeko klausula aplikatuz; edonola ere, legean zehaztutako kasu jakin batzuetan, gehieneko iguera gehigarri batzuk ezarri ahal izango dira.

Era berean, bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu horietan, jabea edukitzaile handia denean, edo azken bost urteetan ohiko etxebizitza gisa alokatuta egon ez diren etxebizitzaren kasuan (baldin eta eremuaren deklarazioan hori justifikatzen bada), ezin izango da gairitu erreferentzia-errentaren indizearen sistemaren arabera aplikatu behar den errentaren gehieneko muga. Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legean sartu den xedapen iragankor berri baten bidez zehazten da nola aplikatu behar den hori.

En cuanto a la disposición transitoria cuarta, recoge el régimen de los contratos de arrendamiento celebrados con anterioridad a la entrada en vigor de la ley, y especifica la continuidad de la vigencia de las medidas de aplicación extraordinaria a los contratos vigentes de arrendamiento de vivienda y, en particular, la recogida en el artículo 46 del Real Decreto-ley 6/2022, de 29 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes en el marco del Plan Nacional de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania.

En cuanto a la disposición derogatoria única recoge la derogación a la entrada en vigor de la ley de cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en ella.

En relación con las disposiciones finales, en la disposición final primera, se establece un mecanismo de carácter excepcional y acotado en el tiempo, que pueda intervenir en el mercado para amortiguar las situaciones de tensión y conceder a las administraciones competentes el tiempo necesario para poder compensar en su caso el déficit de oferta o corregir con otras políticas de vivienda las carencias de las zonas declaradas de mercado residencial tensionado.

Para ello, se modifica la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos, estableciendo para las viviendas arrendadas, la posibilidad de que el arrendatario pueda acogerse a la finalización del contrato a una prórroga extraordinaria, de carácter anual, y por un periodo máximo de tres años, en los mismos términos y condiciones del contrato en vigor y, en los nuevos contratos de arrendamiento de viviendas que hubiesen estado arrendadas, a nuevos inquilinos, se plantea la limitación del alquiler en estas zonas, con carácter general a la renta del contrato anterior, aplicada la cláusula de actualización anual de la renta del contrato anterior, permitiendo ciertos incrementos adicionales máximos en determinados supuestos establecidos en la ley.

Asimismo, en estas zonas de mercado residencial tensionado, cuando el propietario sea un gran tenedor, o en el caso de viviendas que no hubiesen estado arrendadas como vivienda habitual en los últimos cinco años cuando ello se justifique en la declaración de la zona, no podrá exceder del límite máximo del precio aplicable conforme al sistema de índices de precios de referencia, cuya aplicación se define a través de una nueva disposición transitoria que se introduce en la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos.



Azken xedapenetako lehenengoan bertan, zenbait hobekuntza egiten zaizkio etxebizitzaren errentamendu-kontratuen erregulazioari, Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legearen aldaketa batzuen bidez.

Hobekuntza horien artean, nabarmentzekoa da, alde batetik, kontratua amaitzen denerako urtebeteko ezohiko luzapena sartu dela, zeina eskatu ahal izango baita zaurgarritasun sozial eta ekonomikoko egoeran egonez gero eta egoera hori egiaztatuz gero, baldin eta errentatzailea etxebizitza-edukitzaile handia bada; eta, bestetik, higiezin-kudeaketaren gastuak eta kontratua formalizatzeko gastuak errentatzailearen kontura izateko betebeharra ezarri dela.

Azkenik, azken xedapenetako lehenengoak, etxebizitzaren alokairu-kontratuen urteko eguneratzeetan neurritz kanpoko areagotzerik egon ez dadin, Estatistikako Institutu Nazionalari eskatzen dio etxebizitzaren errentamendu-kontratuak urtero eguneratzeko beste erreferentzia-indize bat defini dezala 2024. urtea amaitu baino lehen. Horretarako, beste xedapen gehigarri bat sartzen du Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/1994 Legean.

Azken xedapenetako bigarrenak zerga-pizgarri batzuk jasotzen ditu, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan (PFEZ) etxebizitzarako higiezinaren errentamenduei aplikatu beharrekoak.

Zehazki, PFEZaren erregulazioa hobetzen da, ohiko etxebizitza arrazoizko prezioetan aloka dadin sustatzeko. Horretarako, etxebizitza-alokairuaren errendimendu garbiaren oraingo % 60ko murrizketa modulatu da, eta, hala, errentamendu-kontratu berrietan, murrizketa % 50ekoa izango da, baina % 90era igo ahal izango da, baldin eta bizitegi-merkatu tentsionatuko eremuetan etxebizitza alokatzeko kontratu berriak sinatzen badira aurreko kontratuarekiko % 5eko murrizketarekin gutxienez.

Murrizketa hori % 70era iritsi ahal izango da, baldin eta bizitegi-merkatu tentsionatuko eremuetan alokairura bideratutako etxebizitzak badira eta 18 eta 35 urte bitarteko gazteei alokatzen bazaizkie, edo, bestela, baldin eta administrazio publikoari edo irabazi-asmorik gabeko entitate diren hirugarren sektoreko edo gizarte-ekonomiako entitatei errentan emandako etxebizitza eskuragarri pizgarridunak edo babestuak badira, edo alokairu-errenta mugatzen duen etxebizitza-programa publikoren bati atxikitakoak.

En la misma disposición final primera se introducen también determinadas mejoras en la regulación de los contratos de arrendamiento de vivienda a través de diferentes modificaciones de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos.

Entre ellas, se puede destacar la introducción de una prórroga extraordinaria de un año al término del contrato, que podrá solicitarse en situaciones acreditadas de vulnerabilidad social y económica cuando el arrendador sea un gran tenedor de vivienda, así como el establecimiento de la obligación de que los gastos de gestión inmobiliaria y los de formalización del contrato sean a cargo del arrendador.

Finalmente, la disposición final primera, con objeto de evitar incrementos desproporcionados en las actualizaciones anuales de los contratos de alquiler de vivienda, a través de la introducción de una nueva disposición adicional en la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos, encomienda al Instituto Nacional de Estadística la definición, antes de la finalización del año 2024, de un nuevo índice de referencia para la actualización anual de los contratos de arrendamiento de vivienda.

La disposición final segunda recoge una serie de incentivos fiscales aplicables en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, IRPF, a los arrendamientos de inmuebles destinados a vivienda.

En particular, se establece una mejora de la regulación del IRPF para estimular el alquiler de vivienda habitual a precios asequibles, a través de la modulación de la actual reducción del 60 por ciento en el rendimiento neto del alquiler de vivienda, estableciendo que, en los nuevos contratos de arrendamiento, el porcentaje de reducción será del 50%, que podrá incrementarse hasta el 90 por ciento, en el caso de que se firmen nuevos contratos de arrendamiento de vivienda en zonas de mercado residencial tensionado con una reducción de al menos un 5 por ciento sobre el contrato anterior. Esta reducción podrá alcanzar el 70 por ciento cuando se trate de la incorporación al mercado de viviendas destinadas al alquiler en zonas de mercado residencial tensionado y se alquilen a jóvenes de entre 18 y 35 años en dichas áreas, o bien, se trate de vivienda asequible incentivada o protegida, arrendada a la administración pública o entidades del tercer sector o de la economía social que tengan la condición de entidades sin fines lucrativos, o acogida a algún programa público de vivienda que limite la renta del alquiler.



Eta % 60ko murrizketa lortu ahal izango da errendimendu garbiaren gainean, aurreko bi urteetan birgaitze-obrak egin badira.

Azken xedapenetako hirugarrenaren bidez, modu iraunkorrean okupatu gabe dauden bizitegi-erabilerako higieziinei ondasun higiezinaren gaineko zergan (OHZ) egiten zaien errekarua modulatzeko da. Hain zuzen, errekarua hori bi urtez baino gehiagoz hutsik egon diren etxebizitzetara aplikatu ahal izango zaie, betiere lau higiezin edo gehiago dituzten jabeen titulartasunekoak badira, salbu eta aldi baterako desokupazioaren kausa justifikatuak badaude, legeak tasatuak.

Era berean, xedatzen da OHZaren kuota likidoaren gaineko errekarua handituko dela, gehienez % 150era (gaur egun % 50ekoa da), desokupazioaren iraupenaren eta titular bera duten udalerriko etxebizitzetara okupatu gabeen kopuruaren arabera, hartara are gehiago optimizatuko delakoan bizitegitarako eraikuntza-parkearen erabilera eta are gehiago indartuko direlakoan udalek etxebizitzetara okupatu gabeen arazoari fiskalitatearen bidez aurre egiteko dituzten baliabideak.

Azken xedapenetako laugarrenak, bestalde, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina aldatzen du, zeina urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen. Hala, aurrerantzean % 30etik 40ra handituko da etxebizitzetara babestuetarako erreserbatuta dauden lurzoruen bizitegi-eraikigarritasuna, hirigintza-antolamenduan aurreikusia, baldin eta urbanizazio berriko jarduketetan sartuko diren landa-lurzoruak badira, eta % 10etik 20ra baldin eta urbanizazioa eraberritzeko edo berritzeko jarduketak egingo diren lurzoru urbanizatuak badira.

Azken xedapenetako bosgarrenaren bidez, hobekuntza garrantzitsuak sartzen dira zaugarritasun-egoerarako utzarazpen-prozeduraren erregulazioan, Prozedura Zibilaren urtarilaren 7ko 1/2000 Legearen aldaketa baten bidez.

Besteak beste, nabarmentzekoak dira hobekuntza hauek: utzarazpen-prozeduratan, ez da interesdunaren baimenik behar zaugarritasun-egoera egiaztatzeko eskumena duten administrazio publikoetara jakinarazpena egiteko; babes-eremua zabaltzen da zaugarritasun-egoerak identifikatzen diren kasuetarako; hobekuntza teknikoak sartzen dira testuaren idazketan; eta, bat eginez jurisprudentziako estandarrekin eta nazioarteko estandarrekin, ez da ezartzen Justizia Administrazioaren letratuak prozesua

Y, podrá alcanzar una reducción del 60 por ciento sobre el rendimiento neto cuando se hubiesen efectuado obras de rehabilitación en los dos años anteriores.

A través de la disposición final tercera se modula el recargo a los inmuebles de uso residencial desocupados con carácter permanente en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles, IBI, que podrá aplicarse a aquellas viviendas vacías durante más de dos años, con un mínimo de cuatro viviendas por propietario, salvo causas justificadas de desocupación temporal, tasadas por la ley.

Asimismo, se establece el incremento del recargo actualmente situado en el 50 por ciento de la cuota líquida del IBI hasta un máximo del 150 por ciento, en función de la duración de la desocupación y del número de viviendas también desocupadas que sean del mismo titular en el término municipal, con el objetivo de que tenga un mayor efecto en la optimización del uso del parque edificatorio residencial y refuerce el instrumento de los Ayuntamientos para hacer frente a situaciones de vivienda desocupada a través de la fiscalidad.

Por su parte, la disposición final cuarta modifica el texto refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana, aprobado por Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, incrementando el porcentaje de reserva de suelo destinado a vivienda protegida del 30 al 40 por ciento de la edificabilidad residencial prevista por la ordenación urbanística en el suelo rural que vaya a ser incluido en actuaciones de nueva urbanización, y del 10 al 20 por ciento en el caso de suelo urbanizado que deba someterse a actuaciones de reforma o renovación de la urbanización.

A través de la disposición final quinta se introducen importantes mejoras en la regulación del procedimiento de desahucio en situaciones de vulnerabilidad, a través de una modificación de la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Entre otros aspectos, se puede destacar la eliminación de la necesidad de consentimiento del interesado en el traslado a las Administraciones públicas competentes para comprobar su situación de vulnerabilidad en procedimientos de desahucio, se amplía el ámbito de protección cuando se identifiquen situaciones de vulnerabilidad, se introducen diferentes mejoras técnicas en la redacción y, de acuerdo con los estándares jurisprudenciales e internacionales, no se establece un sistema de suspensión automática por el Letrado de la



automatikoki eteteko sistemarik zaurgarritasuna egiaztatzen den kasuetarako, baizik eta beste sistema bat, zeinetan auzitegiak hartuko baitu erabakia, delako kasuaren balorazio haztatua eta proportzionala egin ondoren. Sistema horren arabera, luzatu egingo dira oraingo etete-epaek: bi hilabetekoa izango da pertsona fisikoentzat, eta lau hilabetekoa pertsona juridikoentzat (gaur egun, hilabete batekoa eta hiru hilabetekoa da, hurrenez hurren).

Azken xedapenetako bosgarrenak, halaber, adiskidetze- edo bitartekaritza-prozedura bat ezartzen du kasu hauetarako: auzi-jartzailea etxebizitza-edukitzaile handia izanik, demanda jarri zaion higiezina okupatzailearen ohiko etxebizitza bada, eta okupatzailea zaurgarritasun ekonomikoko egoeran badago.

Prozedura hori aplikatuta, administrazio eskudunek hobeto erantzun ahal izango diete ukitutako pertsona eta familiei, gizarte-babeseko hainbat tresnaren eta etxebizitza-politikako programen bitartez.

Azken xedapenetako seigarrenean, zabaldu egiten da etxebizitzaren errentamendu-kontratuen errentaren urteko eguneratzearen ezohiko muga, martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluan jasotakoa (errege lege-dekretu horren bidez, presako neurriak hartzen dira gerrak Ukrainan dituen ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren esparruan).

Zehazki, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldirako, % 3ko muga ezartzen da etxebizitzaren errentamendu-kontratuen errentaren urteko eguneratzean.

Era berean, zaurgarritasun ekonomikoaren parametro batzuk ezartzen dira, irizpide objektiboetan oinarrituak, eta, bide penaletik bideratu behar diren etxebizitza-okupazioei dagokienez, xedapen gehigarri berri baten bidez ezartzen da epaitegiek egoeraren berri emango dietela administrazio publiko eskudunei, mendeko pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak eta adingabeak babesteko.

Azkenik, azken xedapenetako zazpigarrenak zehazten du zer eskumen-tituluk gaitzen duten Estatuko legeria hura osatzen duten askotariko edukiak bere gain hartzeko. Azken xedapenetako zortzigarrenak, berriz, erregelamendu-garapena gaitzen du, eta, azken xedapenetako bederatzigarrenaren bidez, araua indarrean jartzen da.

Administración de Justicia si se acredita vulnerabilidad, sino un sistema de decisión por el tribunal previa valoración ponderada y proporcional del caso concreto, fijando un plazo de suspensión en dos meses para las personas físicas y cuatro meses para las personas jurídicas, incrementando los actuales plazos de uno y tres meses, respectivamente.

La disposición final quinta también introduce un procedimiento de conciliación o intermediación en los supuestos en los que la parte actora tenga la condición de gran tenedor de vivienda, el inmueble objeto de demanda constituya vivienda habitual de la persona ocupante y la misma se encuentre en situación de vulnerabilidad económica.

La aplicación de este procedimiento facilitará a las Administraciones competentes dar adecuada atención a las personas y hogares afectados, ofreciendo respuesta a través de diferentes instrumentos de protección social y de los programas de política de vivienda.

En la disposición final sexta se extiende la limitación extraordinaria de la actualización anual de la renta de los contratos de arrendamiento de vivienda contenida en el artículo 46 del Real Decreto-ley 6/2022, de 29 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes en el marco del Plan Nacional de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania.

En concreto, se amplía temporalmente la medida estableciendo una limitación al 3 por ciento en la actualización anual de la renta de los contratos de arrendamiento de vivienda en el periodo comprendido entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2024.

Asimismo, se establecen unos concretos parámetros de vulnerabilidad económica basados en criterios de carácter objetivo y, en el caso de ocupaciones de viviendas que hayan de sustanciarse en vía penal, se establece a través de una nueva disposición adicional que los Juzgados darán traslado de la situación a las Administraciones Públicas competentes, para la protección de personas dependientes, personas con discapacidad, víctimas de violencia sobre la mujer o personas menores de edad.

Por último, la disposición final séptima detalla los títulos competenciales que habilitan a la legislación estatal para asumir los contenidos diversos que conforman aquella, habilitando la disposición final octava el desarrollo reglamentario y estableciendo la disposición final novena la entrada en vigor de la norma.



IV

Lege hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioekin.

Hala, bete egiten da premiaren eta efikaziaren printzipioa, zeina erabat justifikatuta baitago etxebizitzaren arloko erronkek gizartean eta ekonomian duten garrantzia kontuan hartuta, eta legean jasotako neurri eta xedapenak baliatuko dira erronka horiei heltzeko, administrazioen arteko lankidetzaren beharrezkoaren bitartez. Halaber, bete egiten dira segurtasun juridikoaren, proportzionaltasunaren eta efizientziaren printzipioak ere, eta nabarmentzen da neurriak ordenamendu juridikoarekin bat datoze eta aukerarik onena direla aurrez zehaztutako helburuak lortzeko, eta arauaren edukiek ez dakartela inolako administrazio-kargarik.

Segurtasun juridikoaren eta gardentasunaren printzipioari dagokionez, legea izapidetzeko orduan aurretiazko kontsulta publikoa egin da, bai eta entzunaldia eta informazio publikoaren izapidea ere, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legeak 26. artikuluan xedatzen duen moduan. Hala ere, printzipio hori indartu egiten da arauaren arrazoiak eta helburuak argi eta erraz azalduta, zeinak jasotzen baitira azalpenzati honetan eta arau-eraginaren azterketari buruzko nahitaezko memorian.

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Legearen xedea.

1. Lege honen xedea da arau bidez zehaztea, Estatuaren eskumenen esparruan, zer oinarritzko baldintza behar diren berdintasunez gauzatu ahal izan daitezen etxebizitzarekin lotutako eskubide eta eginbehar konstituzionalak, eta, bereziki, etxebizitza duin eta egokia izateko eta arazoizko baldintzetan gozatzeko eskubidea, bat etorritik Espainiak berretsitako nazioarteko tresnek xedatzen dutenarekin, eta betiere kasu emanez autonomia-erkidegoen eskumenei, zehazki etxebizitzaren arloan esleituak dituztenei.

2. Etxebizitza-eskubidea gauzatzeko dela bermatzeko, halaber, lege honen bidez arautu nahi da etxebizitzaren jabetza-eskubidearen oinarritzko edukia, haren funtzio sozialari dagokionez. Horren barruan sartzen da, lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnen artean, etxebizitzak ordenamendu juridikoan aurreikusitako bizitegi-erabilerara bideratzeko eginbeharra, bai eta etxebizitza mantendu,

IV

La ley se adecua a los principios de buena regulación previstos en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

De este modo, se cumple con el principio de necesidad y eficacia, plenamente justificado por la relevancia social y económica de los retos en materia de vivienda y la adecuación de las medidas y disposiciones contenidas en la ley dirigidas a abordarlos sobre la base de la necesaria cooperación interadministrativa. Igualmente, se da cumplimiento a los principios de seguridad jurídica, proporcionalidad y eficiencia, destacándose que las medidas que incorpora son congruentes con el ordenamiento jurídico e incorporan la mejor alternativa posible para la consecución de los objetivos anteriormente detallados, sin implicar los contenidos de la norma ningún tipo de carga administrativa.

En cuanto al principio de seguridad jurídica y de transparencia, la ley ha seguido en su tramitación los trámites de consulta pública previa, así como de audiencia e información pública, previstos en el artículo 26 de la Ley 50/1997, de 27 de noviembre, del Gobierno, si bien, tal principio se refuerza a través de la exposición clara y accesible de los motivos y de los objetivos de la norma, que se recogen en esta parte expositiva y en la preceptiva memoria de análisis de impacto normativo.

TÍTULO PRELIMINAR

Disposiciones generales

Artículo 1. Objeto de la ley.

1. Esta ley tiene por objeto regular, en el ámbito de competencias del Estado, las condiciones básicas que garantizan la igualdad en el ejercicio de los derechos y en el cumplimiento de los deberes constitucionales relacionados con la vivienda y, en particular, el derecho a acceder a una vivienda digna y adecuada y al disfrute de la misma en condiciones asequibles, atendiendo al cumplimiento de lo dispuesto en los instrumentos internacionales ratificados por España y respetando en todo caso las competencias de las comunidades autónomas y, específicamente, las que tienen atribuidas en materia de vivienda.

2. Con objeto de asegurar el ejercicio del derecho a la vivienda, será asimismo objeto de esta ley la regulación del contenido básico del derecho de propiedad de la vivienda en relación con su función social, que incluye el deber de destinar la misma al uso habitacional previsto por el ordenamiento jurídico, en el marco de los instrumentos de ordenación territorial y urbanística, así como de mantener, conservar y



kontserbatu eta birgaitzekoa ere. Botere publikoek ziurtatuko dute eginbehar hori zuzen betetzen dela, nork bere eskumenen esparruan, legearen arabera bidezkoak diren neurriak aplikatuz.

3. Legearen xedea da, orobat, babes handiagoa ematea etxebizitzak erosteko eta errentan hartzeko eragiketetan informazio osoa, objektiboa, egiazkoa, argia, ulergarria eta irisgarria eskuratzeko eskubideari.

2. artikulua. Etxebizitza-politika publikoen helburuak.

Botere publikoek helburu komun hauek dituzte etxebizitzaren arloko jardunean, nork bere eskumenen esparruan:

a) Etxebizitza duin eta egoki bat arrazoizko baldintzetan eskuratzeko eskubideak gauzatzea, bat etorri Espainiako Konstituzioarekin eta Espainiak berretsitako nazioarteko tresnen gomendioekin.

b) Sustatzea etxebizitzak benetan erabiltzen eta gozaten direla, edukitzaren legezko araubidearen arabera, bai eta etxebizitzak mantentzen, kontserbatzen eta, hala badagokio, birgaitzen eta hobetzen direla ere.

c) Etxebizitzaren bizigarritasuna bermatzea, hau da, ziurtatzea etxebizitzek betetzen dituztela pertsonen duintasuna eta osasuna bermatzeko eta bizitzako etapa guztietan dituzten biztante-premiak asetzeko beharrezkoak diren gutxieneko kalitate-, funtzionaltasun- eta irisgarritasun-eskakizunak, aplikatzeko den legerian ezartzen direnak, arreta berezia jarriz adingabeen beharrei, zeinentzat etxebizitza funtsezko espazioa baita garatzeko, seguru egoteko eta babes hartzeko, eta aintzat hartuz eskakizun horiek oinarritzekoak direla eskubideak eta askatasunak benetan gauza daitezten.

d) Administrazioen arteko lankidetzaren sustatzea, etxebizitza-politikako jardura publikoetan koherentzia eta gardentasuna bultzatuz eta gainerako politika sektorialeko koordinazioari bide emanez, eta herritarrek eta gizarte zibila ordezkatzeko duten entitateek etxebizitzaren arloan parte hartuko dutela bermatzea.

e) Egonkortasuna eta segurtasun juridikoa bermatzea etxebizitzaren jabetzan, erabileran eta gozamenean, arreta berezia jarriz zaurgarritasun-egoeran edo -arrikan dauden pertsonen eta familien, eta, bereziki, ardurapean adingabeak dituzten familia eta bizikidetzaren unitateei. Horretarako, etxebizitzarekin lotutako neurri eraginkorrak hartuko dira, eta neurriak behar bezala koordinatuko dira gizarte-arretaren, prestakuntzaren eta enpleguaren arloko neurri osagarriekin eta beste laguntza-ekintza batzuekin.

rehabilitar la vivienda, atribuyendo a los poderes públicos la función de asegurar su adecuado cumplimiento, en el ámbito de sus respectivas competencias, a través de la aplicación de las medidas que legalmente procedan.

3. La ley también tiene por objeto reforzar la protección del acceso a información completa, objetiva, veraz, clara, comprensible y accesible, en las operaciones de compra y arrendamiento de vivienda.

Artículo 2. Fines de las políticas públicas de vivienda.

Constituyen fines comunes de la acción de los poderes públicos en materia de vivienda, en el ámbito de sus respectivas competencias:

a) La efectividad de los derechos de acceso en condiciones asequibles a una vivienda digna y adecuada de acuerdo con la Constitución Española y las recomendaciones de los instrumentos internacionales ratificados por España.

b) Promover el uso y disfrute efectivo de la vivienda, en virtud del régimen legal de tenencia, así como su mantenimiento, conservación y, en su caso, rehabilitación y mejora.

c) Asegurar la habitabilidad de las viviendas, entendida como el conjunto de los requisitos mínimos de calidad, funcionalidad y accesibilidad universal que, atendiendo a la normativa aplicable, deben cumplir las mismas para garantizar la dignidad y la salud de las personas, para satisfacer sus necesidades de habitación en las diferentes etapas de su vida, con especial atención a las necesidades de los menores, para quienes la vivienda constituye además un espacio fundamental de desarrollo, seguridad y cobijo, y como base para el efectivo ejercicio de derechos y libertades.

d) Fomentar la colaboración interadministrativa, favoreciendo la coherencia y la transparencia en las actuaciones públicas de política de vivienda, así como la coordinación con las restantes políticas sectoriales, y garantizar la participación de la ciudadanía y de las entidades representativas de la sociedad civil en el ámbito de la vivienda.

e) Proteger la estabilidad y la seguridad jurídica en la propiedad, uso y disfrute de la vivienda, con especial atención a las personas y hogares en situación o riesgo de vulnerabilidad, y específicamente a familias, hogares y unidades de convivencia con menores a cargo, a través de medidas efectivas en materia de vivienda y asegurando la debida coordinación con medidas complementarias de atención social, formación, empleo y otras acciones de acompañamiento.





f) Etxebizitza-parke publikoak garatzea, kudeatzea eta mantentzea, merkatuan etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun handienak dituzten gizarte-sektoreei egokitutako etxebizitza duin eta egokien eskaintza handi eta egonkorra bermatzeko. Horretarako, behar den inbertsioa egingo da aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, eta kontuan hartuko dira hazkunde-dinamiken edo biztanleria-galeraren eraginpean dauden lurralde-eremu guztien ezaugarri eta premiak.

g) Parke pribatuetan zein publikoetan dauden etxebizitzaren birgaitzea eta hobekuntza sustatzea, horretarako programak eta neurriak ezarri egokiro jorratzeko jasangarritasuna, energia-efizientzia, energia berriztagarrien erabilera, bizigarritasuna, irisgarritasun unibertsala, kontserbazioa, erabilera-segurtasunaren hobekuntza eta digitalizazioa, ikuspegi integralak bultzatuta eta landaguneetako etxebizitzaren ezaugarriak berariaz kontuan hartuta.

h) Arrazoizko prezioan alokatzeko moduko etxebizitzaren eskaintza nahikoa eta egokia bideratzea, arreta berezia jarrita gazteei eta zaugarritasun-egoeran edo -arriskuan dauden familiei. Horretarako, lurzorua erregulatzeko eta erabiltzeko mekanismo eraginkorrak jarriko dira martxan, eta eskatzaileen benetako premiei erantzungo dieten eta gizarte- eta lurralde-kohesioa ahalbidetuko duten programazio- eta plangintza-neurriak eta -tresnak landuko dira.

i) Modua ematea hirugarren sektoreko entitateen etxebizitza-parke sozialak egon daitezen, zeinak etxebizitza-parke publikoen osagarri izango baitira eta kolektibo eta familia zaugarrientzako bizitoki- eta etxebizitza-eskaintza handituko baitute, arreta berezia jarri ardurapean adingabeak dituzten familia eta bizikidetzak unitateei.

j) Etxebizitza duin eta egokia eskuratzen laguntzeko baliabideak ahalik eta modu eraginkorrean kudeatzea, eta, hala badagokio, lankidetzak publiko-pribaturako formulak bultzatzea.

k) Etxebizitza erosteko eta alokatzeko eragiketetan oinarriko eskubideak eta interes legitimoak babestea, erantzukizunak zehaztuz eta informazio nahikoa eta egokia eskuratzen dela ziurtatuz.

l) Etxebizitza eskuratzeko eta gozatzeko orduan edozein arrazoirengatik gerta daitekeen diskriminazio oro ezabatzea, etxebizitza-politikako jarduketak eta neurrietan integrazioa, inklusioa eta gizarte- eta lurralde-kohesioa ziurtatuz.

f) Favorecer el desarrollo, gestión y mantenimiento de los parques públicos de vivienda para asegurar una oferta significativa y estable de viviendas dignas y adecuadas a los sectores sociales con mayores dificultades de acceso a una vivienda en el mercado, mediante la necesaria inversión en cada ejercicio presupuestario y atendiendo a las características y necesidades de todos los ámbitos territoriales, afectados por diferentes dinámicas de crecimiento o de pérdida de población.

g) Impulsar la rehabilitación y mejora de las viviendas existentes, tanto en el parque privado como en los públicos, a través de programas y medidas en materia de sostenibilidad, eficiencia energética y utilización de energías renovables, habitabilidad, accesibilidad universal, conservación, mejora de la seguridad de utilización y digitalización, favoreciendo enfoques integrales y contemplando de forma específica las características de la vivienda en el medio rural.

h) Impulsar y fomentar la existencia de una oferta suficiente y adecuada de vivienda en alquiler a precios asequibles, con especial atención a las personas jóvenes y hogares en situación o riesgo de vulnerabilidad, habilitando mecanismos efectivos de regulación y uso del suelo, y desarrollando medidas e instrumentos de programación y planificación que permitan atender las necesidades reales de los demandantes y favorezcan la cohesión social y territorial.

i) Apoyar la existencia de parques sociales de vivienda de entidades del tercer sector, que sean complementarios a los parques públicos de vivienda y amplíen la oferta de alojamiento y vivienda destinada a colectivos y hogares vulnerables, con especial atención a familias, hogares y unidades de convivencia con menores a cargo.

j) Lograr la máxima eficiencia en la gestión de los recursos disponibles para favorecer el acceso a una vivienda digna y adecuada, fomentando, en su caso, las fórmulas de colaboración público-privada.

k) Proteger los derechos básicos y los intereses legítimos en las operaciones de compra y arrendamiento de vivienda, delimitando las responsabilidades y asegurando el acceso a información suficiente y adecuada.

l) Eliminar cualquier tipo de discriminación, por cualquier razón, en el acceso a una vivienda y el disfrute de la misma, asegurando la integración, inclusión y cohesión social y territorial en las actuaciones y medidas de política de vivienda.



m) Etxebizitza-parkean irisgarritasun unibertsala sustatzea, etxebizitza berrietan benetan aplikatuko dela ziurtatuz eta lehendik dagoen etxebizitza-parkean sortzen diren beharrei erantzuteko neurriak hartuz.

n) Neurrien bidez identifikatzea eta prebenitzea espekulazio-atxikipena, bizitegi-segregazioa, gainokupazio-prozesuak, bizitegi-bazterkeria larria (hala nola txabolismoa eta etxegabetasuna) eta egungo etxebizitza-parkearen eta haren inguruaren degradazioa, etxebizitzaren bizitegi-funtzioa garatu eta bizi-kalitatea hobetu ahal izateko.

ñ) Generoaren, adinaren, gaitasunaren eta lurraldearen ikuspegian oinarrituta, berdintasuna bermatzea etxebizitzaren arloko politika eta ekintza guztietan, maila guztietan, eta horien plangintza-, exekuzio- eta ebaluazio-fase guztietan.

o) Kontrolatzea eta bermatzea administrazio eskudunek arduraz erabiltzen dituztela etxebizitza-politikaren helburuak betetzeko behar dituzten baliabide publiko guztiak, eta parke publikoaren kudeaketari dagokionez erantzunkidetasun-irizpideak aplikatzea okupatzaileen artean.

p) Lehenatasunez arreta eta informazioa ematea pobrezian, gizarte-bazterkerian edo bestelako zaurgarritasun-egoeraren batean egoteagatik babes berezia behar duten eta adingabeak ardurapean dituzten familia eta bizikidetzak unitateei.

q) Etxebizitza-politikak aplikatzea lurralde-desorekak zuzentzeko, despopulazio-fenomenoen ondorioz kaltetuen dauden hiri- eta metropoli-guneetan nahiz landaguneetan.

r) Bermatzea etxebizitza-politika publikoen garapenean parte hartzen dutela higiezin merkatuan esku hartzen duten eragileek; bereziki, etxebizitzaren sustatzaile sozialek, etxebizitza-eskubidea defendatzen duten herritarren elkarteek, errentarien eta jabeen elkarteek, finka-administratzaileek eta higiezin-tako agenteek. Orobat, gardentasuna bultzatzea parte-hartze prozesu horretan.

s) Gizarte-ekonomia indartzea, gizarte- eta laguntza-entitateek etxebizitzaren arloan parte har dezaten bultzatuz.

3. artikulua. Definizioak.

Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako definizio hauek ezartzen dira, betiere kontraesanen ez badaude etxebizitzaren arloan eskumena duten administrazioek araututako definizioekin (kasu horretan, eta erregulazioaren ondorioetarako, haiek lehenetsiko dira):

m) Impulsar la accesibilidad universal en el parque de vivienda, asegurando su efectividad en las nuevas viviendas y adoptando medidas para solventar las necesidades sobrevenidas en el parque de vivienda preexistente.

n) Adoptar medidas para identificar y prevenir la retención especulativa, la segregación residencial, los procesos de sobreocupación, la exclusión residencial grave como el chabolismo o el sinhogarismo y la degradación de las condiciones del parque de viviendas existente y de su entorno, para permitir el desarrollo de su función residencial y la mejora de la calidad de vida.

ñ) Garantizar la igualdad, desde la perspectiva de género, edad, capacidad y perspectiva territorial, en todas las políticas y acciones en materia de vivienda, a todos los niveles, y en todas sus fases de planificación, ejecución y evaluación.

o) Controlar y garantizar el uso responsable de recursos públicos suficientes, para cumplir los objetivos de la política de vivienda por parte de las Administraciones competentes y aplicar, en la gestión del parque público, criterios de corresponsabilidad de sus ocupantes.

p) Priorizar la atención e información a familias, hogares y unidades de convivencia con menores a cargo que, por encontrarse en situación de pobreza, exclusión social u otras formas de vulnerabilidad, deben ser objeto de especial protección.

q) Contribuir en la aplicación de las políticas de vivienda a la corrección de los desequilibrios territoriales, tanto en ámbitos urbanos y metropolitanos como en entornos rurales, que pueden estar más afectados por fenómenos de despoblación.

r) Fomentar la transparencia y garantizar la participación en el desarrollo de las políticas públicas de vivienda de los agentes que intervienen en el mercado inmobiliario, particularmente de los promotores sociales de vivienda, de las asociaciones ciudadanas de defensa del derecho a la vivienda, de las asociaciones de arrendatarios y de propietarios, de administradores de fincas y de los agentes inmobiliarios.

s) Potenciar la economía social, impulsando la participación de las entidades de carácter social y asistencial en el ámbito de la vivienda.

Artículo 3. Definiciones.

A los efectos de lo dispuesto en esta ley, y en tanto no entren en contradicción con las reguladas por las administraciones competentes en materia de vivienda, en cuyo caso, y a los efectos de su regulación, prevalecerán aquéllas, se establecen las siguientes definiciones:



a) Etxebizitza: pertsonen bizileku gisa erabiltzen den izaera pribatiboko eraikina edo eraikin zatia, legez eskatzen diren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen dituena, eta kokatuta dagoen eraikineko espazio eta zerbitzu komunetarako sarbidea izan dezakeena, hori guztia aplikatu beharreko legeriarekin eta hirigintza- eta lurralde-antolamenduetarekin bat etorrita.

b) Infraetxebizitza: etxebizitza gisa erabiltzen den eraikina edo eraikin zatia, aplikatu beharreko legeriaren arabera bete behar diren gutxieneko baldintzak betetzen ez dituena.

Etxebizitza batek baldintzak betetzen ez dituela joko da honako kasu hauetan: bizigelen azaleraren, kopuruaren, dimentsioaren eta ezaugarrien eskakizunak betetzen ez baditu; gabezia larriak baditu oinarrizko instalazioetan eta zuzkiduretan; eta eraikinak bete behar dituen segurtasuneko, irisgarritasun unibertsaleko eta bizigarritasuneko gutxieneko eskakizunak betetzen ez baditu.

c) Etxebizitza duina eta egokia: tamaina, kokapena, bizigarritasun-baldintzak, irisgarritasun unibertsala, energia-efizientzia, energia berriztagarrien erabilera eta gainerako ezaugarriak direla-eta pertsonaren edo bizikidetzaren unitatearen bizileku-premiei erantzuten dien etxebizitza edo egoitza, oinarrizko hornidura-sareetarako sarbidea duena eta finantza-ahaleginaren arabera arrazoizko baldintzetan eskura daitekeena, eta pertsona edo bizikidetzaren unitateari modua ematen diona intimitatea zaindu eta duintasunez bizi ahal izateko eta familia- eta gizarte-harremenez gozatzeko, pertsonen erabateko garapena eta gizarte-inklusioa bultzatuz.

d) Finantza-ahaleginaren araberako arrazoizko baldintzak: diru-sarrera garbiak eta ezaugarri partikularrak kontuan hartuta familiei gehiegizko finantza-ahalegina egitea ez dakarkien salmenta- edo alokairu-prezioaren baldintzak. Zehazki, aintzat hartzen dira bai hipoteka-kuota edo errentamendu-errenta, bai jabe hipotekatuari edo errentariari ordaindu beharreko oinarrizko gastu eta hornidurak, eta, oro har, ezin da bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren ehuneko 30 gainditu.

e) Oinarrizko gastuak eta hornidurak: energia-hornidurek (hala nola elektrizitateak, gasak eta gasolioak), ur korronteak eta telekomunikazio-zerbitzu finkoek eragiten dituzten kostuak eta errentariak ohiko etxebizitzagatik jabeen erkidegoari egin beharreko ekarpenak, denak ere ohiko etxebizitzari dagozkionak.

f) Etxebizitza babestua: etxebizitza-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen ohiko bizileku izateko araubide berezia duen

a) Vivienda: edificio o parte de un edificio de carácter privativo y con destino a residencia y habitación de las personas, que reúne las condiciones mínimas de habitabilidad exigidas legalmente, pudiendo disponer de acceso a espacios y servicios comunes del edificio en el que se ubica, todo ello de conformidad con la legislación aplicable y con la ordenación urbanística y territorial.

b) Infravivienda: la edificación, o parte de ella, destinada a vivienda, que no reúne las condiciones mínimas exigidas de conformidad con la legislación aplicable.

En todo caso, se entenderá que no reúnen dichas condiciones las viviendas que incumplan los requisitos de superficie, número, dimensión y características de las piezas habitables, las que presenten deficiencias graves en sus dotaciones e instalaciones básicas y las que no cumplan los requisitos mínimos de seguridad, accesibilidad universal y habitabilidad exigibles a la edificación.

c) Vivienda digna y adecuada: la vivienda que, por razón de su tamaño, ubicación, condiciones de habitabilidad, accesibilidad universal, eficiencia energética y utilización de energías renovables y demás características de la misma, y con acceso a las redes de suministros básicos, responde a las necesidades de residencia de la persona o unidad de convivencia en condiciones asequibles conforme al esfuerzo financiero, constituyendo su domicilio, morada u hogar en el que poder vivir dignamente, con salvaguarda de su intimidad, y disfrutar de las relaciones familiares o sociales, favoreciendo el pleno desarrollo y la inclusión social de las personas.

d) Condiciones asequibles conforme al esfuerzo financiero: aquellas condiciones de precio de venta o alquiler que eviten un esfuerzo financiero excesivo de los hogares teniendo en cuenta sus ingresos netos y sus características particulares, considerando, tanto la cuota hipotecaria o la renta arrendaticia, como los gastos y suministros básicos que corresponda satisfacer al propietario hipotecado o al arrendatario, no debiendo superar con carácter general el 30 por ciento de los ingresos de la unidad de convivencia.

e) Gastos y suministros básicos: el importe del coste de los suministros energéticos (de electricidad, gas, gasoil, entre otros), agua corriente, de los servicios de telecomunicación, y las posibles contribuciones a la comunidad de propietarios, todos ellos de la vivienda habitual.

f) Vivienda protegida: la vivienda sometida a un régimen especial para destinarla a residencia habitual de personas con dificultades de acceso



etxebizitza, hiri- eta metropoli-gunean zein landagunean egon daitekeena.

Lege honen ondorioetarako, honako modalitate hauek ezartzen dira: etxebizitza soziala, edo prezio mugatuko etxebizitza.

1. Etxebizitza soziala: alokairura, lagapenera edo errentaren edo salmentaren mugak dituen aldi baterako beste edozein edukitza-formulara bideratutako titulartasun publikoko etxebizitza, merkatuan etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsoneri edo familiei zuzendua.

Etxebizitza sozialtzat hartuko da, halaber, azalera-eskubidea, administrazio-emakida edo negozio juridiko baliokidea eratu zaion titulartasun publikoko lurzorua.

Etxebizitza soziala hirigintza-mailan zuzkidura publikokotzat kalifikatutako lursailetan gauzatu ahal izango da, edo titulartasun publikoko ekipamenduetarako erabiltzen diren eta zerbitzu publikoari atxikita dauden eraikin edo lokaletan egon ahal izango da.

Etxebizitza soziala zuzenean kudeatu ahal izango dute administrazio publikoek edo haien mendeko entitateek, etxebizitzari lotutako helburu sozialak dituzten irabazi-asmorik gabeko entitateek, edo haren izaerarekin bateragarriak diren lankidetzara publiko-privatuko formulen bitartez.

Larrialdiko etxebizitza sozialtzat hartu ahal izango da larrialdi-egoerei erantzuteko erabiltzen den etxebizitza soziala, bizitoki-irtenbide unibertsala ematen diena epe laburrerako eta aldi baterako, harik eta beste etxebizitza iraunkor bat eskuratu arte, etxebizitza galdu duten edo etxebizitza egoki bat eskuratu ezin duten pertsona eta familiei, egoera horretan dauden pertsonen inguruabar dokumentalak eta administratiboak edozein direla ere.

2. Prezio mugatuko etxebizitza babestua: etxebizitza soziala edo zuzkidura publikokoa ez den titulartasun publikoko edo pribatuko etxebizitza, errenta-prezioen mugak eta legez edo erregelamenduz ezartzen diren gainerako eskakizunak bete behar dituen, eta helburu duena merkatuan etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen edo familiek etxebizitza iraunkorra izateko duten premiari erantzutea.

Administrazio publiko eskudunak ezarritako prozedurari jarraikiz emango zaio prezio mugatuko etxebizitzari kalifikazio hori.

g) Etxebizitza eskuragarri pizgarriduna: lege honen ondorioetarako, etxebizitza eskuragarri pizgarridunak izango dira titulartasun pribatuko etxebizitzak, hirugarren sektoreko eta gizarte-ekonomiako entitateenak barne, zeinen titularrari

al mercado de vivienda, tanto en ámbitos urbanos y metropolitanos, como en el medio rural.

A los efectos de esta ley, se establecen las siguientes modalidades: vivienda social, o vivienda de precio limitado.

1.º Vivienda social: la vivienda de titularidad pública destinada al alquiler, cesión o cualquier otra fórmula de tenencia temporal sujeta a limitaciones de renta o de venta y destinada a personas u hogares con dificultades para acceder a una vivienda en el mercado.

También será considerada vivienda social aquella cuyo suelo sea de titularidad pública sobre el que se haya constituido derecho de superficie, concesión administrativa o negocio jurídico equivalente.

La vivienda social podrá desarrollarse sobre terrenos calificados urbanísticamente como dotacionales públicos o estar comprendida en edificaciones o locales destinados a equipamientos de titularidad pública y afectos al servicio público.

La vivienda social podrá gestionarse de manera directa por las administraciones públicas o entidades dependientes, por entidades sin ánimo de lucro con fines sociales vinculados a la vivienda, o a través de fórmulas de colaboración público-privada, que sean compatibles con el carácter de la misma.

Podrá tener la consideración de vivienda social de emergencia aquella vivienda social que esté destinada a atender situaciones de emergencia, ofreciendo solución habitacional a corto plazo y de forma temporal, con carácter universal y hasta que se provea de una vivienda alternativa permanente, a personas y familias en situación de pérdida o imposibilidad para acceder a una vivienda adecuada, independientemente de las condiciones documentales y administrativas de las personas afectadas.

2.º Vivienda protegida de precio limitado: la vivienda de titularidad pública o privada, excluida la social o dotacional pública, sujeta a limitaciones de precios de renta y todos los demás requisitos que se establezcan legal o reglamentariamente y destinada a satisfacer la necesidad de vivienda permanente de personas u hogares que tengan dificultades de acceder a la vivienda en el mercado.

La vivienda de precio limitado será calificada como tal con arreglo al procedimiento establecido por la Administración Pública competente.

g) Vivienda asequible incentivada: a los efectos de lo dispuesto en esta ley, se considerará como aquella vivienda de titularidad privada, incluidas las entidades del tercer sector y de la economía social, a cuyo titular la Administración



onura urbanistikoak, fiskalak edo beste edozein motatakoak ematen baitizkio administrazio eskudunak, etxebizitza horiek ohiko bizileku gisa erabil ditzaten beren diru-sarreraren mailaren ondorioz etxebizitza bat merkatuko prezioan eskuratu ezin dutenek, alokairu-araubidean edo aldi baterako beste edozein edukitza-formula erabiliz.

Etxebizitza horiei esleitzen zaizkien onura publikoak bat etorriko dira administrazio eskudunak kasu bakoitzean ezartzen dituen erabilera-mugekin, denbora-mugekin eta gehieneko prezioekin.

h) Hirugarren sektoreko etxebizitza- eta bizitoki-parkea: titularra edo kudeatzailea irabazi-asmorik gabeko entitate bat duten eraikinen multzoa, etxebizitzari lotutako helburu sozialak dituen, eta bideratuta dagoena zaurgarritasun-egoeran edo gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsona edo familien etxebizitza- edo bizitoki-premiak asetzera eta gizarteko maila zabalei etxebizitza eskuragarria hornitzera.

i) Ohiko bizilekua: bertan bizi den pertsonaren bizileku iraunkorra den etxebizitza, udal-eroldan dauden datuen bidez edo zuzenbidean baliozkoak diren beste bitarteko batzuen bidez egiazta daitekeena.

j) Bigarren bizilekua: jabeak aldi baterako edo aldizkako egonaldietarako erabiltzen duen etxebizitza oro, haren ohiko bizilekua ez dena.

k) Edukitzaile handia: lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako, bizitegi-erabilerako hamar hiri-higiezin baino gehiagoren titularra edo bizitegi-erabilerako 1.500 m²-tik gorako azalera eraikiaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoa, garajeak eta trastelekuak alde batera utzita.

Definizio hau partikularizatu ahal izango da bizitegi-merkatu tentsionatuko eremuen deklarazioan, eta edukitzaile handitzat joko dira eremu horietan kokatutako bizitegi-erabilerako bost hiri-higiezin edo gehiagoren titularrak, autonomia-erkidegoak dagokion justifikazio-memorian hala arrazoitzen badu.

l) Etxegabetasuna: ingurune komunitario batean etxebizitza duin eta egoki bat modu iraunkorrean eskuratu ezin duen pertsona, familia edo bizikidetzaren bati eragiten dion bizi-zirkunstantzia, zeinaren ondorioz pertsona, familia edo bizikidetzaren bati behartuta baitago bide publikoan edo beste gune publiko desegoki batzuetan bizitzera, edo administrazio publiko edo irabazi-asmorik gabeko entitateen bizitoki kolektibo instituzionalizatuak erabiltzera, edota etxebizitza desegokietan, masifikatuetan edo ez-seguruetan bizitzera, aldi baterako edo ez, legezko titulurik gabe, edo etxebizitza uzteko jakinarazpenarekin, edo indarkeriaren mehatxuarekin.

competente otorga beneficios de carácter urbanístico, fiscal, o de cualquier otro tipo, a cambio de destinarlas a residencia habitual en régimen de alquiler, o de cualquier otra fórmula de tenencia temporal, de personas cuyo nivel de ingresos no les permite acceder a una vivienda a precio de mercado.

Los beneficios públicos que se asignen a estas viviendas estarán vinculados a las limitaciones de uso, temporales y de precios máximos que, en cada caso, determine la Administración competente.

h) Parque de vivienda y alojamiento del tercer sector: el conjunto de inmuebles de titularidad o gestionados por entidades sin ánimo de lucro con fines sociales vinculados a la vivienda, destinados a satisfacer la necesidad de vivienda o alojamiento de personas u hogares en situación de vulnerabilidad o en riesgo de exclusión social, o proveer vivienda asequible a amplias capas de la sociedad.

i) Residencia habitual: la vivienda que constituye el domicilio permanente de la persona que la ocupa y que puede acreditarse a través de los datos obrantes en el padrón municipal u otros medios válidos en derecho.

j) Residencia secundaria: toda aquella vivienda que se utiliza por su propietario para estancias temporales o intermitentes, y que no constituye su residencia habitual.

k) Gran tenedor: a los efectos de lo establecido en esta ley, la persona física o jurídica que sea titular de más de diez inmuebles urbanos de uso residencial o una superficie construida de más de 1.500 m² de uso residencial, excluyendo en todo caso garajes y trasteros.

Esta definición podrá ser particularizada en la declaración de entornos de mercado residencial tensionado hasta aquellos titulares de cinco o más inmuebles urbanos de uso residencial ubicados en dicho ámbito, cuando así sea motivado por la comunidad autónoma en la correspondiente memoria justificativa.

l) Sinhogarismo: circunstancia vital que afecta a una persona, familia o unidad de convivencia que no puede acceder de manera sostenida a una vivienda digna y adecuada en un entorno comunitario y aboca a las personas, familias o unidades de convivencia que lo sufren a residir en la vía pública u otros espacios públicos inadecuados, o utilizar alternativas de alojamiento colectivo institucionalizado de las diferentes administraciones públicas o de entidades sin ánimo de lucro, o residir en una vivienda inadecuada, temporal o no, inapropiada o masificada, en una vivienda insegura, sin título legal, o con notificación de abandono de la misma, o viviendo bajo amenaza de violencia.



Etzegabetasun-egoera hori etzegabetasun kronifikatuzat jo ahal izango da baldin eta urtebete edo gehiago irauten badu.

4. artikulua. Interes orokorreko zerbitzuak.

1. Finantzaketa publikoa zertara bideratu erabakitzeko orduan, interes orokorreko zerbitzutzat hartuko dira, ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koehesioaren funtsezko elementu gisa, gaian eskumena duten administrazioek ezartzen dituztenak, eta, estatu-eskumenari edo Estatuaren eta gainerako administrazioen arteko lankidetzari dagokionez, honako hauek:

- a) Administrazio publiko eskudunek eta haien erakunde instrumental edo mendekoek etxebizitza-parke publikoa sortzeko, handitzeko, kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak egitea, bai eta parke hori kudeatzea ere arrazoizko baldintzetan erabiltzen dela bermatzeko, bat etorritik aurreko artikuluan edo dagokion araudi autonomikoan jasotzen den arrazoizko baldintzen definizioarekin.
- b) Gehieneko salmenta- eta alokairu-prezioa finkatzen duen babes publikoko araubideren bati lotutako etxebizitzak eraikitzeko edo birgaitzeko jarduerak publiko nahiz pribatuak egitea, betiere norberaren egoera ekonomiko eta soziala zehazten duten irizpide objektiboetan oinarritutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak edo familiak badira etxebizitza horien hartzailak.
- c) Administrazio publiko eskudunek eta haien ente instrumental edo mendekoek beharrezkoak diren jarduketak egitea titulartasun publikoko eta pribatuko etxebizitza-erakinen bizigarritasuna, irisgarritasuna edo energia-efizientzia hobetzeko.

2. Aurreko apartatuan adierazitako interes orokorreko zerbitzuak zuzenean eman ahal izango dituzte administrazio publikoek edo haien ente instrumentalek edo mendekoek, edo, bestela, jabeekin egindako akordio bidez, hirugarren sektorean eta gizarte-ekonomian legez eraturako entitateekin egindako akordio bidez edota lankidetzaren publiko-pribaturako formulen bidez eman ahal izango dira, indarrean dagoen lege-esparruari jarraituz eta lankidetzaren izaera kontuan hartuta.

5. artikulua. Akzio publikoa.

1. Lege honen II. titulua, III. titulua eta IV. tituluko II. kapitulua aplikatuz ematen diren egintzak eta xedapenak aurkaratu ahal izango dituzte horretarako legitimatuta daudenek, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa

Podrá calificarse como sinhogarismo cronificado, cuando la situación de sinhogarismo continúe o se produzca a lo largo de un periodo de tiempo igual o superior a un año.

Artículo 4. Servicios de interés general.

1. A los efectos de la orientación de la financiación pública, tienen la consideración de servicios de interés general, como elementos clave de la cohesión económica, social y territorial, los determinados por las administraciones competentes en la materia, y en el ámbito de competencia estatal o de colaboración del Estado con las demás administraciones:

- a) El desarrollo de las actuaciones necesarias para la creación, ampliación, conservación y mejora del parque público de vivienda, por parte de las Administraciones públicas competentes y sus entes instrumentales o dependientes, así como su gestión para asegurar su utilización efectiva en condiciones asequibles, tal y como se definen en el artículo anterior o en la normativa autonómica correspondiente.
- b) Las actividades, públicas o privadas, cuyo fin sea la construcción o rehabilitación de viviendas sometidas a algún régimen de protección pública que fije un precio máximo de venta y alquiler, con destino a las personas u hogares que reúnan los requisitos preestablecidos en base a criterios objetivos que definan su situación económica y social.

c) El desarrollo de las actuaciones necesarias por parte de las Administraciones públicas competentes y sus entes instrumentales o dependientes, encaminadas a promover la mejora de las condiciones de habitabilidad, de accesibilidad o de eficiencia energética de los edificios de viviendas, de titularidad pública y privada.

2. Los servicios de interés general indicados en el apartado anterior podrán ser ejecutados de manera directa por las Administraciones públicas o sus entes instrumentales o dependientes, o bien, podrán realizarse a través de acuerdos con los propietarios, con las entidades legalmente constituidas del tercer sector y de la economía social, o a través de diferentes fórmulas de colaboración público-privada, en cumplimiento del marco legal vigente atendiendo a la naturaleza de la colaboración.

Artículo 5. Acción pública.

1. Los actos y disposiciones dictados en aplicación del título II, del título III y del capítulo II del título IV de esta ley podrán impugnarse, además de por quienes estén legitimados para ello, en los términos previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y en la



arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin; horiek ez ezik, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoek ere aurkaratu ahal izango dituzte, etxebizitzaren babesarekin lotutako interes orokorrak defendatzeko, akzio publikoa egikaritzuz.

Egikaritze hori ezingo da izan fede onaren aurkakoa, ezta eskubide-abusua ere.

2. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 31. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, akzio publikoa egikaritzeak ezin izango du inola ere berekin ekarri egoera juridiko individualizatu bat aitortzeko eta berroneratzeko uzia, salbu eta akzioa egikaritzen duena bada eragindako eskubide edo interes legitimo bat izateagatik legitimatuta dagoena.

Uko egiteak edo atzera egiteak, dela administrazio-bidean, dela administrazioarekiko auzibidean, ez du diru-ordainik ekarriko.

6. artikulua. Etxebizitzarekin lotutako berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa.

1. Etxebizitzarekin lotutako berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioaren arabera, pertsona guztiek eskubidea dute etxebizitza duin eta egoki bat erabiltzeko eta gozatzeko, indarreko legerian eta araudian ezarritako lege- eta kontratu-eskakizunak betez, eta inolako diskriminaziorik, bazterkeriarik, jazarpenik eta indarkeriarik jasan gabe.

2. Administrazio eskudunek bermatu behar dute betetzen dela 1. apartatuak dioena, eta beharrezkoak diren babes-neurriak hartuko dituzte etxebizitzaren erabilerari eta gozamenari eragiten dioten honako egoera hauek berariaz prebenitzeko eta borrokatzeko:

a) Zuzeneko diskriminazioa, zeina gertatzen baita baldin eta pertsona batek edo pertsona-talde batek, etxebizitzarekin lotutako alderdiren batean, antzeko egoeran dagoen beste pertsona batek jasotakoaz bestelako tratua jasotzen badu, salbu eta bidezko arrazoiren bat badago tratu-desberdintasun hori modu objektibo eta arrazoizkoan justifikatzeko, eta erabilitako bitartekoak proportzionatuak, egokiak eta beharrezkoak badira.

b) Zeharkako diskriminazioa, zeina gertatzen baita baldin eta itxuraz neutroa den xedapen arauemaile batek, plan batek, klausula konbentzional edo kontratuzko batek, itun individual batek, alde bakarreko erabaki batek, irizpide batek edo praktika batek desabantaila partikular bat eragiten badio pertsona bati edo pertsona talde bati etxebizitza-eskubidea baliatzeko orduan.

Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa, por las personas jurídicas sin ánimo de lucro que, mediante el ejercicio de esta acción, defiendan intereses generales vinculados con la protección de la vivienda.

Dicho ejercicio no podrá ser contrario a la buena fe, ni constituir un abuso de derecho.

2. A efectos de lo establecido en el artículo 31 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa, el ejercicio de esta acción no podrá en ningún caso comprender una pretensión de reconocimiento y restablecimiento de una situación jurídica individualizada, salvo que quien ejercite la acción sea quien esté legitimado por ostentar un derecho o interés legítimo afectado.

La renuncia o el desistimiento de la misma, ya sea en vía administrativa, ya en vía contencioso-administrativa, no podrá implicar contrapartidas económicas.

Artículo 6. Principio de igualdad y no discriminación en la vivienda.

1. En virtud del principio de igualdad y no discriminación en la vivienda, todas las personas tienen derecho al uso y disfrute de una vivienda digna y adecuada, cumpliendo con los requerimientos legales y contractuales establecidos en la legislación y normativa vigente, sin sufrir discriminación, exclusión, acoso o violencia de ningún tipo.

2. Las Administraciones competentes deberán garantizar el cumplimiento de lo previsto en el apartado 1, adoptando las medidas de protección necesarias para prevenir y hacer frente, de manera específica a las siguientes situaciones que afectan al uso y disfrute de la vivienda:

a) La discriminación directa, que se produce cuando una persona o grupo de personas recibe, en algún aspecto relacionado con la vivienda, un trato diferente del recibido por otra persona en una situación análoga, siempre que la diferencia de trato no tenga una causa legítima que la justifique objetiva y razonablemente, y los medios utilizados sean proporcionados, adecuados y necesarios.

b) La discriminación indirecta, que se produce cuando una disposición normativa, un plan, una cláusula convencional o contractual, un pacto individual, una decisión unilateral, un criterio o una práctica, aparentemente neutros, producen una desventaja particular para una persona o grupo de personas respecto de otras en el ejercicio del derecho a la vivienda.



Ez dago zeharkako diskriminaziorik, baldin eta jarduketak helburu legitimo bat badu, diskriminazioa objektiboki eta arrazoiz justifikatzen duena, eta helburu hori lortzeko erabilitako bitartekoak proportzionatuak, egokiak eta beharrezkoak badira.

c) Higiezin-jazarpena, hau da, edozein pertsonari bere etxebizitzaren erabilera baketsua galaraztea eta alderdi materialari, pertsonalari edo sozialari dagokionez giro oldarkorra sorraraztea helburu duen ekintza edo omisio oro, eskubideez abusatuz egiten dena, azken xedea izanik pertsona hori etxebizitza erabiltzeko eta gozatzeko eskubidearen gainean nahi ez duen erabaki bat hartzera behartzea.

d) Infraetxebizitza batean, etxebizitza gainokupatu batean edo legez kanpoko edozein bizitokitan bizitzeko egiten diren edozein tituluren bidezko salmenta-eragiketak, errentamendu-eragiketak edo lagapen oso nahiz partzialaren eragiketak, bai eta etxebizitza saltzeko, alokatzeko edo lagatzeko eskubide legitimorik ez duten edo horretarako ordezkartzarik ez duten pertsonen ondasunen gainean egiten diren eragiketak ere.

I. TITULUA

Etxebizitzaren funtzio soziala eta araubide juridikoa

7. artikulua. Etxebizitzaren funtzio soziala bermatzen duten printzipio gidariak.

1. Aintzat hartuta Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua nola mugatzen duen etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, eta kontuan izanda etxebizitzak funtzio sozial bat betetzen duela — pertsonen, familien eta bizikidetzaren unitateen oinarritzko bizitoki-premiei erantzuteko xedea duen ondasuna den heinean—, administrazio publiko eskudunek modua eman behar dute eskubide hori arrazoizko baldintzetan gauzatzeko delata bermatzeko, arreta berezia jarriz adingabeak ardurapean dituzten familiei eta bizikidetzaren unitateei. Horretarako, etxebizitzari lotutako eskubide eta eginbeharren estatutuaz baliatuko dira, lege honetan xedatutakoari jarraituz.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoa betetzeko, botere publikoek, beren eskumenen esparruan, mekanismo eraginkorrak antolatu behar dituzte etxebizitza behar bezala babesten, kontserbatzen, birgaitzen eta hobetzen dela ziurtatzeko, bat etorritik lege honetan xedatutakoarekin eta etxebizitzaren arloan indarrean dagoen legeria eta araudiarekin.

I. KAPITULUA

Herritarren oinarritzko estatutua

8. artikulua. Herritarrek etxebizitzari dagokionez dituzten eskubideak.

Herritar guztiek dituzte eskubide hauek:

No existe discriminación indirecta si la actuación tiene una finalidad legítima que la justifica objetiva y razonablemente y los medios utilizados para alcanzar esta finalidad son proporcionados, adecuados y necesarios.

c) El acoso inmobiliario, entendido como toda acción u omisión con abuso de derecho con el objetivo de perturbar a cualquier persona en el uso pacífico de su vivienda y crearle un entorno hostil, ya sea en el aspecto material, personal o social, con la finalidad última de forzarla a adoptar una decisión no deseada sobre el derecho que le ampara de uso y disfrute de la vivienda.

d) Las operaciones de venta, arrendamiento o cesión por cualquier título, completa o parcial, para residencia de una infravivienda, una vivienda sobreocupada y cualquier forma de alojamiento ilegal, o respecto a bienes sobre los que no se ostente un derecho legítimo que faculte al efecto o la representación del mismo.

TÍTULO I

Función social y régimen jurídico de la vivienda

Artículo 7. Principios rectores de la garantía de la función social de la vivienda.

1. Atendiendo a la delimitación que del derecho a una vivienda digna y adecuada efectúa el artículo 47 de la Constitución Española, y considerando que la vivienda cumple una función social dado que constituye un bien destinado a satisfacer las necesidades básicas de alojamiento de las personas, familias y unidades de convivencia, corresponde a las administraciones públicas competentes velar por promover las condiciones necesarias para garantizar el ejercicio efectivo de dicho derecho en condiciones asequibles y con especial atención a familias, hogares y unidades de convivencia con menores a cargo, a través del estatuto de derechos y deberes asociados a la vivienda, en los términos dispuestos en la presente ley.

2. Para el cumplimiento de lo previsto en el apartado anterior, los poderes públicos, en el ámbito de sus respectivas competencias, deben articular los mecanismos efectivos para asegurar su debida protección, conservación, rehabilitación y mejora, en los términos dispuestos por esta ley y de acuerdo con la legislación y normativa vigente en materia de vivienda.

CAPÍTULO I

Estatuto básico del ciudadano

Artículo 8. Derechos del ciudadano en relación con la vivienda.

Todos los ciudadanos tienen derecho a:





a) Etxebizitza duin eta egokia izatea jabetza-araubidean, errentamendu-araubidean, erabilera-lagapeneko araubidean nahiz legezko beste edozein edukitza-araubidetan, lege honetan ezarritakoari jarraituz.

b) Administrazio publikoek etxebizitza-programa publikoei buruz eta programa horietan parte hartzeko baldintzei buruz duten informazioa jasotzea desgaitasunen bat duten pertsonentzako formatu irisgarrietan, bai eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsona eta familiek etxebizitza bat eskuratzeko dituzten prestazio, laguntza eta baliabide publikoei buruzko informazioa ere.

c) Etxebizitzaren arloan eskumena duten administrazio publikoek eraturako etxebizitza babestuen eskatzaileen erregistroetan izena emateko eskatzea, bai eta etxebizitza eskuratzeko programa, prestazio, laguntza eta baliabide publikoetan ere, beren egoera sozial eta ekonomikoaren eta inguruabar pertsonal eta familiarren arabera.

d) Etxebizitza-programa publikoetan parte hartzea, eta etxebizitzaren arloko prestazio, laguntza eta baliabide publikoak eskuratzeko, araudi erregulatzailean ezarritako moduan eta baldintzetan.

9. artikulua. Herritarrek etxebizitzari dagokionez dituzten eginbeharrak.

Herritar guztiek dituzte eginbehar hauek:

a) Etxebizitza-parkea errespetatzea eta zaintzen laguntzea, erabilera- eta gozamen-eskubidea baliatzea eragozten duen edozein jarduera gogaikarri edo osasungaitz saihestuz.

b) Norbera bizi den etxebizitza kontserbatzeko, konpontzeko edo hobetzeko lanak egitea, bat etorri legez dagokion edukitza-araubidearekin.

c) Beste pertsona, familia edo entitate publiko eta pribatu batzuen eskura dauden etxebizitzaren edukitza baketsua errespetatzea, eta edukitza hori eragozten edo zailtzen duen jarduerarik ez egitea.

d) Etxebizitza erosteko edo alokatzeko eragiketetan, eskualdatzaileari edo bitartekariari legez ezarritako eginbeharrak betetzea, IV. tituluan eta eragiketa horiei aplikatu beharreko gainerako araudian zehazten den bezala.

e) Gogoan izatea etxebizitza-parke publikoa zeinen garrantzitsua den etxebizitza-eskubidearen alde egiteko tresna gisa, eta parkea behar bezala mantentzea eta kontserbatzea, zailtasun handienak dituzten familiei zerbitzua eman diezaion.

a) Disfrutar de una vivienda digna y adecuada, en los términos dispuestos por esta ley, ya sea en régimen de propiedad, de arrendamiento, de cesión de uso, o de cualquier otro régimen legal de tenencia.

b) Acceder a la información de que dispongan las Administraciones públicas sobre los programas públicos de vivienda y a las condiciones de acceso a los mismos en formatos accesibles para personas con discapacidad, así como sobre las prestaciones, ayudas y recursos públicos disponibles para garantizar el acceso a la vivienda por parte de las personas y familias en situación de vulnerabilidad.

c) Solicitar la inscripción en los registros de demandantes de vivienda protegida constituidos al efecto por las Administraciones públicas competentes en la materia, y en los diferentes programas, prestaciones, ayudas y recursos públicos para el acceso a la vivienda, en función de su situación social y económica, así como de sus circunstancias personales y familiares.

d) Participar en los programas públicos de vivienda, y acceder a las prestaciones, ayudas y recursos públicos en materia de vivienda en los términos y condiciones establecidos en su normativa reguladora.

Artículo 9. Deberes del ciudadano en relación con la vivienda.

Todos los ciudadanos tienen el deber de:

a) Respetar y contribuir a preservar el parque de vivienda, evitando la realización de cualquier actividad molesta o insalubre, que sea perturbadora del ejercicio del derecho de uso y disfrute señalado en el artículo anterior.

b) En relación con la vivienda que se habita, realizar las actuaciones de conservación, reparación o mejora que correspondan de acuerdo con el régimen legal de tenencia en virtud del cual se dispone de la misma.

c) En relación con la vivienda ajena, a disposición de otras personas, hogares, o entidades públicas y privadas, respetar la pacífica tenencia de la misma y abstenerse de la realización de cualquier tipo de actividad que la impida o dificulte.

d) En relación con las operaciones de compra o alquiler de vivienda, cumplir los deberes legalmente establecidos para el transmitente o intermediario definidos en el título IV y demás normativa aplicable en dichas operaciones.

e) En relación con el parque público de vivienda, atender a su especial importancia como instrumento de acción en favor del derecho a la vivienda y velar por su adecuado mantenimiento y conservación, para que pueda servir a los hogares con mayores dificultades.



II. KAPITULUA

Etxebizitzaren jabetza-eskubidearen oinarritzko araubide juridikoa

10. artikulua. Etxebizitzaren jabetza-eskubidearen edukia: ahalmenak.

1. Etxebizitza kokatuta dagoen lurren oinarritzko egoeraren arabera lurzorua-ren estatu-legeriak aitortzen dituen eskubideez gain, etxebizitzaren jabetza-eskubideak honako hauek hartzen ditu barnean, bat etorritz lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren arloan aplikatzeko den legeriarekin:

- a) Etxebizitza erabiltzea, gozatzea eta izatea, haren kalifikazioaren, egoeraren eta ezaugarri objektiboen arabera, etxebizitzaren arloko legeriarekin eta aplikatu beharreko legeriarekin bat etorritz.
- b) Administrazio eskudunei etxebizitzaren hirigintza-egoerari eta etxebizitza kokatuta dagoen eraikinari buruz kontsulta egiteko eskubidea.
- c) Etxebizitza kontserbatzeko, birgaitzeko, irisgarritasun unibertsala ezartzeko, handitzeko edo hobetzeko obrak egitea, administrazio eskudunak ezarritako baldintzei jarraituz; eta, hala bada gorkio, jarduketa horietarako gaitzen duen titulua eskuratzea, legez eska badaiteke.

2. Etxebizitzaren arloan eskumena duten administrazioei dagokie etxebizitzaren jabetza-eskubideak erabat gauzatzen direla zaintzea, eta, horretarako, modu itunduan eta koordinatuan jardungo dute legetan eta etxebizitza eskuratzen laguntzeko plan eta programetan jasotzen diren ekintzak sustatzen.

Ondorio horietarako, gaiari buruzko legeriak biltzen dituen neurri guztiak hartu eta betearazi ahal izango dituzte, eta, bereziki, honako hauek:

- a) Laguntza eta dirulaguntza publikoak.
- b) Zerga-pizgarriak.
- c) Administrazio publikoek edo haien ente instrumentalek etxebizitza-parke publikoak zuzenean edo hirugarrenekin lankidetzan kudeatzea.
- d) Etxebizitzarekin lotutako helburu sozialak dituzten hirugarren sektoreko entitateekin lankidetzan aritzea, parke publikoetako etxebizitzaren kudeaketa errazteko, bai eta etxebizitza sozialeko parke propioaren kudeaketa errazteko ere.
- e) Etxebizitzaren titularrekin hitzarmenak eginez ekimen pribatua sustatzea, etxebizitza horiek administrazio publiko eskudunei lagatzeko, edota alokairu sozialeko eskaintza nahiz arrazoizko prezioa duen alokairuko eskaintza areagotzeko beste formula batzuk aplikatzea.

CAPÍTULO II

Régimen jurídico básico del derecho de propiedad de la vivienda

Artículo 10. Contenido del derecho de propiedad de la vivienda: facultades.

1. Además de los derechos reconocidos en la legislación estatal de suelo en función de la situación básica de los terrenos en los que se sitúe la vivienda, de conformidad con la legislación en materia de ordenación territorial y urbanística de aplicación, el derecho de propiedad de la vivienda comprende:

- a) Las facultades de uso, disfrute y disposición de la misma conforme a su calificación, estado y características objetivas, de acuerdo con la legislación en materia de vivienda y la demás que resulte de aplicación.
- b) El derecho de consulta a las Administraciones competentes, sobre la situación urbanística de la vivienda y del edificio en que se ubica.

c) La realización de las obras de conservación, rehabilitación, accesibilidad universal, ampliación o mejora, de conformidad con las condiciones establecidas por la Administración competente y, en su caso, el título habilitante de tales actuaciones, cuando éste sea legalmente exigible.

2. Corresponde a las Administraciones competentes en materia de vivienda velar por el pleno ejercicio de los derechos de la propiedad de vivienda, actuando de manera concertada y coordinada en la promoción de las acciones previstas en la legislación y en los planes y programas aplicables para favorecer el acceso a la vivienda.

A tales efectos, podrán adoptarse y ejecutarse cuantas medidas prevea la legislación en la materia y, en particular, las siguientes:

- a) Ayudas y subvenciones públicas.
- b) Incentivos fiscales.
- c) Gestión directa por parte de las Administraciones Públicas o sus entes instrumentales, o en colaboración con terceros, de los parques públicos de vivienda.
- d) Colaboración con entidades del tercer sector cuyos fines de carácter social estén vinculados con la vivienda, para facilitar la gestión de viviendas pertenecientes a los parques públicos, así como la gestión de su propio parque de vivienda social.
- e) Fomento de la iniciativa privada mediante convenios con los titulares de viviendas para su cesión a las Administraciones públicas competentes u otras fórmulas para favorecer el incremento de la oferta de alquiler social o a precio asequible.



f) Etxebizitzen errentamenduaren merkatuan bitartekaritza sustatzea, etxebizitzak benetan okupa daitezen bultzatzeko.

11. artikulua. Etxebizitzaren jabetza- eskubidearen edukia: eginbeharrak eta kargak.

1. Etxebizitza kokatuta dagoen lurren oinarriko egoeraren arabera lurzoruaren estatu-legeriak ezartzen dituen eginbeharrez gain, etxebizitzaren jabetza-eskubideak honako hauek hartzen ditu barnean, lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren arloan aplikatzekoa den legeriarekin bat etorriz, eta etxebizitzaren funtzio soziala dela-eta dituen mugekin:

- a) Etxebizitza norberak eta benetan erabili eta gozatzea, haren kalifikazioaren, egoeraren eta ezaugarri objektiboen arabera, etxebizitzaren arloko legeriarekin eta aplikatu beharreko gainerakoarekin bat etorriz eta jabetzaren funtzio soziala bermatuz betiere.
- b) Etxebizitza mantentzea, kontserbatzea eta, hala badagokio, birgaitzea, bat etorriz lege honekin, lurralde-, hirigintza- eta etxebizitza-antolamenduari buruzko legeekin eta haien babesean onartutako tresnekin.
- c) Etxebizitza ez gainokupatzea eta ez alokatzea legez eskatzen diren bizigarritasun-betekizunak eta -baldintzak urratzen dituzten erabilera eta jardueretarako.
- d) Etxebizitza saltzeko edo alokatzeko eragiketetan, aplikatzekoa den araudiak eta lege honen IV. tituluak ezartzen dituzten informazio-betebeharrak betetzea.
- e) Etxebizitza bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu batean baldin badago, administrazio eskudunarekin lankidetzan aritzeko eta informazioa emateko betebeharrak betetzea, lege honen II. tituluaren ezarritako moduan.

2. Etxebizitzaren arloan eskumena duten administrazioei dagokie etxebizitzaren jabetzari lotutako eginbeharrak betetzen ez direla adieraztea, eta ahalmena izango dute lurralde- eta hirigintza-antolamenduari eta etxebizitzari buruzko legeek aurreikusten dituzten neurri guztiak hartzeko, ofizios edo alderdi batek eskatuta eta, betiere, betebeharrekoari entzun ondoren.

II. TITULUA

Botere publikoen jarduna etxebizitzaren arloan

I. KAPITULUA

Etxebizitzaren arloko jarduketa publikoaren printzipio orokorrak

12. artikulua. Estatuaren jarduna etxebizitzaren eta hiri-birgaitzearen, -berroneratzearen eta -berritzearen arloan.

f) Acciones de fomento de la intermediación en el mercado del arrendamiento de viviendas para propiciar su efectiva ocupación.

Artículo 11. Contenido del derecho de propiedad de la vivienda: deberes y cargas.

1. Además de los deberes establecidos en la legislación estatal de suelo en función de la situación básica de los terrenos en los que se sitúe la vivienda, de conformidad con la legislación en materia de ordenación territorial y urbanística de aplicación, el derecho de propiedad de la vivienda queda delimitado por su función social y comprende los siguientes deberes:

- a) Uso y disfrute propios y efectivos de la vivienda conforme a su calificación, estado y características objetivas, de acuerdo con la legislación en materia de vivienda y la demás que resulte de aplicación, garantizando en todo caso la función social de la propiedad.
- b) Mantenimiento, conservación y, en su caso, rehabilitación de la vivienda en los términos de esta ley, de la legislación de ordenación territorial, urbanística y de vivienda, y de los instrumentos aprobados a su amparo.
- c) Evitar la sobreocupación o el arrendamiento para usos y actividades que incumplan los requisitos y condiciones de habitabilidad legalmente exigidos.
- d) En las operaciones de venta o arrendamiento de la vivienda, cumplir las obligaciones de información establecidas en la normativa aplicable y en el título IV de esta ley.
- e) En caso de que la vivienda se ubique en una zona de mercado residencial tensionado, cumplir las obligaciones de colaboración con la Administración competente y suministro de información en los términos establecidos en el título II de esta ley.

2. Corresponde a las Administraciones competentes en materia de vivienda la declaración del incumplimiento de los deberes asociados a la propiedad de la vivienda, habilitando a adoptar, de oficio o a instancia de parte y previa audiencia, en todo caso, del obligado, cuantas medidas prevea la legislación de ordenación territorial y urbanística y la de vivienda.

TÍTULO II

Acción de los poderes públicos en materia de vivienda

CAPÍTULO I

Principios generales de la actuación pública en materia de vivienda

Artículo 12. Acción del Estado en materia de vivienda, rehabilitación, regeneración y renovación urbana.



1. Estatuak beharrezkoa den plangintza egingo du bere eskumenen esparruan, herritar guztiek etxebizitza duin eta egoki batez gozatzeko duten eskubidea benetan gauza dadin sustatzeko, dagokion finantzaketarekin, xede izanik etxebizitza-eskubidea benetan gauzatzea, bai eta bizitegi-parkearen eta haren ingurune eraikiaren kontserbazioa eta hobekuntza bultzatzea ere, arreta berezia jarriz etxebizitza lortzeko zailtasun handienak dituzten edo bizitegi-bazterkeria jasateko arriskuan egon daitezkeen kolektibo, pertsona eta familiei, eta bereziki erreparatuz adingabeak ardurapean dituzten familia eta bizikidetzak-unitateei.

2. Estatuak, lankidetzaren printzipioa aplikatuz, lagundu ahal izango du, bere plangintzarekin bat etorritik, autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek etxebizitzaren eta hiri-birgaitzearen, -berroneratzearen eta -berrikuntzaren arloan onartzen dituzten planen finantzaketan, eta, Sektoreko Konferentziaren barruan, bere ildo estrategikoak, planak eta neurriak proposatuko ditu, berdintasuna sustatzeko eta lurralde-oreka indartzeko, jarraipen- eta ebaluazio-adierazle egokiak ezarriz.

3. Estatuak, etxebizitzaren arloko jardunaren bidez eta bere eskumenen esparruan, lehenetsua eman behar die gizarte-zerbitzuek identifikatutako zaurgarritasun sozial eta ekonomiko handieneko egoeretan dauden pertsonen, familien eta bizikidetzak-unitateei, bai eta ohiko etxebizitza utzarazteko edo handik botatzeko prozeduren eraginpean egoteagatik bizitoki-larrialdian daudenei ere, haiei guztiei laguntzeko programak aplikatuz. Hori helburu izanik, modua eman behar du haiei beste bizileku batean kokatzen eta etxebizitza duin eta egokia eskuratzen laguntzeko, zaurgarritasun sozial eta ekonomikoko egoerari eta inguruabar pertsonal eta familiarrei erreparatuta, eta, horretarako, indartu egin behar ditu lurralde-administrazio eskudunekin lankidetzan aritzeko mekanismoak.

4. Estatuak, eskumen horiei dagokien lankidetzan, aintzat hartu behar du etxebizitzaren, birgaitzearen, berroneratzearen eta berritzearen arloko politiken lurralde-ikuspegia, eta neurriak hartu behar ditu etxebizitza-premiei erantzuteko hala hiri- eta metropoli-guneetan nola landagunean, despoblazioaren eraginpean egon daitezkeen udalerrietan; horretarako, alokairu sozialeko etxebizitzak sustatuko ditu programa espezifiko bidez, eskuragarriak eta kasuan kasuko gizartearen, ekonomiaren eta lurraldearen egoerara egokituak.

1. Con el objetivo de promover el ejercicio efectivo del derecho de todos los ciudadanos al disfrute de una vivienda digna y adecuada, y en el ámbito de sus competencias, el Estado llevará a cabo la planificación necesaria con su correspondiente financiación con el fin de facilitar el ejercicio efectivo del derecho a la vivienda, así como para favorecer la conservación y mejora del parque residencial y de su entorno construido, prestando especial atención a aquellos colectivos, personas y familias con mayores dificultades de acceso o que puedan encontrarse en riesgo de exclusión residencial y con especial atención a aquellas familias, hogares y unidades de convivencia con menores a cargo.

2. El Estado, en aplicación del principio de cooperación, podrá colaborar, de acuerdo con su propia planificación, en la financiación de los planes que se aprueben por las comunidades autónomas y las ciudades de Ceuta y Melilla en materia de vivienda, rehabilitación, regeneración y renovación urbana, y propondrá, en el seno de la Conferencia Sectorial, sus propias líneas estratégicas, planes y medidas que promuevan dicha igualdad y fortalezcan el equilibrio territorial, estableciendo los oportunos indicadores de seguimiento y evaluación.

3. La acción del Estado en esta materia, en el ámbito de sus competencias, deberá priorizar la atención y la aplicación de los programas de ayuda a aquellas personas, familias y unidades de convivencia que se encuentren en las situaciones de mayor vulnerabilidad social y económica identificadas por los servicios sociales, y en emergencia habitacional por estar afectados por procedimientos de desahucio o lanzamiento de su vivienda habitual, debiéndose promover su adecuado realojo y el acceso a una vivienda digna y adecuada, atendiendo a sus condiciones de vulnerabilidad social y económica, así como a sus circunstancias personales y familiares, reforzando para ello los mecanismos de cooperación con las administraciones territoriales competentes.

4. La colaboración del Estado en estas competencias deberá considerar el necesario enfoque territorial de las políticas en materia de vivienda, rehabilitación, regeneración y renovación, adoptando medidas para atender las necesidades de vivienda tanto en los entornos urbanos y metropolitanos como en el medio rural, en municipios que puedan estar afectados por la despoblación, promoviendo programas específicos con viviendas de alquiler social, asequibles y adecuadas a cada contexto social, económico y territorial.



13. artikulua. Etxebizitza-parkean irisgarritasun unibertsala bermatzeko konpromisoa.

1. Estatuak, bere eskumenen esparruan edo gainerako administrazioekin lankidetzan, etxebizitza-parkean irisgarritasun unibertsala bermatzeko neurriak artikulatuko ditu, parkeak egoiliarren edo hartzaileen behar funtzionaletara egokitzeko modua emanez, eta arreta berezia jarriko dio adinagatik, istripuagatik, hartutako gaixotasunagatik edo beste arrazoi batzuegatik sortu den desgaitasunari, bai eta ardurapean adingabeak dituzten familia eta bizikidetzak unitateei ere, landaguneetako etxebizitza-premia espezifikoei erantzunez.

2. Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubidea eta adin aurreratuan daudelako etxebizitza irisgarri bat behar duten pertsonena egikartzeko xedez, bai eta familia-nukleo edo bizikidetzak unitate bateko kide diren adingabeen eskubideari behar bezala heltzeko ere, eraikuntza berriko etxebizitza guztietan eta Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 2.2 artikulua arabera proiektua behar duten obrak egingo zaizkien etxebizitza guztietan bermatzeko da betetzen direla irisgarritasun-baldintzak eta irisgarritasunaren arloko araudia; eta, araudi hori indarrean jarri aurretik zeuden etxebizitzaren kasuan, egokitzapen-neurri eraginkorrak hartuko dira, horretarako laguntza-programak aplikatuz, bai eta jabeen erkidegoen erreserba-funtsak aplikatuz ere.

14. artikulua. Zaurgarritasun bereziko egoerak.

1. Etxebizitzaren arloko politikek bereziki aintzat hartuko dituzte oso zaurgarriak diren eta segregazio handia duten kokaleku eta auzoetan bizi diren pertsonak, familiak eta bizikidetzak unitateak —hala hiriguneetakoak nola landaguneetakoak—, etxerik gabeko pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak, pobrezia- edo bazterkeria-arriskuan dauden adingabeak, tutoretzapeko adingabe izateari uzten dioten adingabeak, eta jarduketaren unean definitzen den beste edozein pertsona zaurgarri.

2. Horretarako, etxebizitzaren arloan eskumena duten administrazioek hiri-berroneratzeko eta -berrikuntzako jarduketak behar dituzten inguruneak identifikatu ahal izango dituzte beren lurralde-eremuan, infraetxebizitza-egoerak desagerrarazteko bidean aurrera egiteko, biztanle egoiliarren gizarte- eta bizitegi-bazterkeria prebenitu eta konponduko duten ekintza integratuen bidez.

Artículo 13. Compromiso por la accesibilidad universal en el parque de vivienda.

1. El Estado, en el ámbito de sus competencias o en colaboración con las demás administraciones, articulará medidas para garantizar la accesibilidad universal de los parques de vivienda, favoreciendo la adaptación de los mismos a las necesidades funcionales de sus residentes o personas destinatarias, con especial atención a la discapacidad sobrevenida por razones de edad, por accidente, enfermedad adquirida u otras causas, y a las familias, hogares y unidades de convivencia con menores a cargo, atendiendo a las necesidades específicas de la vivienda en zonas rurales.

2. A fin de hacer efectivo el derecho de las personas con discapacidad y de aquellas que por razón de su edad avanzada necesiten una vivienda accesible, así como para atender adecuadamente el derecho de los menores que formen parte de un núcleo familiar o de unidad de convivencia, en toda vivienda de nueva construcción y en aquellas objeto de intervención que requiera proyecto según lo previsto en el artículo 2.2 de la Ley 38/1999, de 5 de noviembre, de Ordenación de la Edificación, se garantizará el cumplimiento de las condiciones de accesibilidad y el cumplimiento de la normativa en materia de accesibilidad y, en el caso de viviendas preexistentes a la vigencia de la referida normativa, se promoverá la aplicación de medidas de adecuación efectiva, aplicando programas de ayuda a tal fin, que se sumen a la aplicación de los fondos de reserva de las comunidades de propietarios.

Artículo 14. Situaciones de especial vulnerabilidad.

1. Las políticas en materia de vivienda tendrán especialmente en cuenta a las personas, familias y unidades de convivencia que viven en asentamientos y barrios altamente vulnerables y segregados, ya sea tanto en entornos urbanos como en zonas rurales, a las personas sin hogar, a las personas con discapacidad, a los menores en riesgo de pobreza o exclusión social, a los menores tutelados que dejen de serlo y a cualesquiera otras personas vulnerables que se definan en el momento de la actuación.

2. Para ello, las Administraciones competentes en materia de vivienda podrán identificar dentro de su ámbito territorial, las zonas que precisen actuaciones de regeneración y renovación urbana para avanzar en la erradicación de situaciones de infravivienda, a través de acciones integradas que prevengan y reparen la exclusión social y residencial de la población residente.



3. Gainera, etxegabetasunaren fenomenoaren aurka borrokatzeko, administrazio eskudunek neurri espezifikoko programatu behar dituzte, beren arau-esparruan xedatutakoaren arabera. Horretarako, beren lurralde-eremuan, ahalegina egingo dute etxegabetasun-egoeran dauden pertsonak bizitoki-irtenbide egokiak izan ditzaten eta etxerik gabeko pertsonak erabat gizarteratu daitezten ikuspegi integratu eta sektorearteko batean oinarrituta, eta bide emango dute politika, baliabide eta zerbitzu guztiak elkarren osagarri izan daitezten, bereziki osasunaren, gizartearen, hezkuntzaren eta enpleguaren arloan.

15. artikulua. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea eta lurralde- eta hirigintza-antolamendua.

1. Lege honetan ezarritako eskubideak berdintasunez baliatzeko oinarritzko baldintzak benetan betetzen direla ziurtatzeko, eta urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginean xedatutakoaren arabera, oinarritzko irizpide hauek ezartzen dira lurralde- eta hirigintza-antolamenduari dagokionez:

a) Etxebizitza sozialen edo zuzkidurazkoen eskaintza zabaltzeko, lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnek honako neurri hauek hartu ahal izango dituzte:

1. Zuzkidura-lurzoruaren erabilera bateragarritzat ezarri ahal izango dute zuzkidura-etxebizitza publikoak eraikitzea.

2. Aukera eman ahal izango dute etxebizitza sozialera edo zuzkidura-etxebizitzara bideratutako lurzoruaren lortzeko, kasuan kasuko tresnek aurreikusten dituzten hirigintza-eraldaketako jarduketaren kargura, lurralde- eta hirigintza-antolamenduari buruzko legeriak hala ezartzen duenean eta legeria horrek xedaturiko baldintzetan.

b) Etxebizitza eskariaren arabera egokitzeko eta etxebizitza duin eta egoki bat izateko aukera errazteko helburuz, lurralde- eta hirigintza-antolamenduak modua emango du bizikidetzara eta bizitza-modu desberdinetara eta familien bizi-zikloaren eskakizunetara egokitutako eraikuntza-tipologiak eta etxebizitza eta bizitokiaren modalitateak aplikatu daitezten, landagunearen kasuistika kontuan hartuta, hala badagokio.

Jarduketa horiek hirigintza-eraldaketakoak zein eraikingintzakoak izan daitezke, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bateginaren 7. artikulua arabera.

3. De manera complementaria, con objeto de luchar contra el fenómeno del sinhogarismo, corresponde a las Administraciones competentes, de acuerdo con lo previsto en su marco normativo, la programación de medidas específicas para afrontarlo, promoviendo en su ámbito territorial el acceso a soluciones habitacionales de alojamiento en condiciones adecuadas por parte de las personas en situación de sinhogarismo y la plena inclusión de las personas sin hogar desde una perspectiva integrada e intersectorial, y posibilitando una adecuada complementariedad entre las distintas políticas, recursos y servicios, especialmente en el ámbito sanitario, social, educativo y de empleo.

Artículo 15. Derecho de acceso a la vivienda y ordenación territorial y urbanística.

1. Para asegurar la efectividad de las condiciones básicas de igualdad en el ejercicio de los pertinentes derechos establecidos por esta ley, y en el marco de lo dispuesto en el texto refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana aprobado por Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, se establecen los siguientes criterios básicos en el ámbito de la ordenación territorial y urbanística:

a) Con la finalidad de ampliar la oferta de vivienda social o dotacional, los instrumentos de ordenación territorial y urbanística:

1.º Podrán establecer como uso compatible de los suelos dotacionales, el destinado a la construcción de viviendas dotacionales públicas.

2.º Podrán establecer la obtención de suelo con destino a vivienda social o dotacional, con cargo a las actuaciones de transformación urbanística que prevean los instrumentos correspondientes, cuando así lo establezca la legislación de ordenación territorial y urbanística y en las condiciones por ella fijadas.

b) Con la finalidad de adaptar la vivienda a la demanda y facilitar el acceso a una vivienda digna y adecuada, la ordenación territorial y urbanística promoverá la aplicación de tipologías edificatorias y de modalidades de viviendas y alojamientos que se adapten a las diferentes formas de convivencia, habitación y a las exigencias del ciclo de vida de los hogares, atendiendo, en su caso, a la casuística del medio rural.

Estas actuaciones podrán ser, tanto de transformación urbanística como edificatorias, de acuerdo con el artículo 7 del texto refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación urbana, aprobado por Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre.



